

Gradu Bikoitza:

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza eta Zuzenbidea

2021/2022 ikasturtea

ERANTZUKIZUN ZIBILA FAMILIA ARLOAN

Aitatasunaren inguruko iruzurraren azterketa

Egilea:

Aitziber Sáez Fernández

Zuzendaria:

Irantzu Beriain Flores

Bilbo, 2022ko otsailaren 7a



Laburpena

Azken urteotan, familia-harremanen arloan erantzukizun zibileko akzioen bideragarritasunaren eta irismenaren inguruko interes juridikoa izugarri hazi da. Lan honetan, fideltasun-betebeharra ez betetzearen ondorioz aitatasuna ezkutatzegatiko erantzukizun zibilaren azterketa egiten da, ikuspuntu kritiko batetik, gaiari buruzko doktrina eta jurisprudentzian oinarrituta. Hasteko, filiazioaren eraentza aztertzen da, ostean engainuaren ondorioz ezarritako seme-alabatasunak dakarren arazoen planteamendu garatuago batekin jarraitzeko. Hala, erantzukizun zibileko akzioak tarteratzeko bete behar diren baldintzak aztertzen dira, kalte-ordaina jasotzea aurreikusten duten jarrera desberdinen azterketarekin batera. Bukatzeko, benetako aitatasun biologikoa ezkutatzearen ondorioz eragindako kalteen inguruan hitz egiten da, baita seme-alaba jaio zenetik elikagai-kontzeptuan ordaindutako zenbatekoak erreklamatzearen buruzko eztabaida azaldu ere.

Hitz gakoak

Filiazioaren (seme-alabatasunaren) eraentza, benetako aitatasuna ezkutatzea, aitatasuna ezkutatzegatik kalte morala, elikagai gisa ordaindutako kopuruak erreklamatzea.

AURKIBIDEA

Laburdurak	4
Sarrera	5
I. Seme-alabatasuna	6
a. Kontzeptua eta seme-alabatasun motak	6
b. Filiazioaren oinarritzko efektuak.....	8
c. Seme-alabatasunaren froga eta zehaztapena	12
d. Seme-alabatasuna aurkaratzeko akzioak	18
II. Erantzukizun zibila	21
a. Portaeraren zehaztapena	21
b. Kontratuzko eta kontratuz kanpoko erantzukizuna	24
i. Familia balioak eta ezkontza betebeharrak urratzeak dakarren erantzukizuna	28
c. Espainiar jurisprudentziaren azterketa	33
i. Auzitegi Gorenaren bi epai aitzindari	34
ii. Probintzia Auzitegien epaiak	37
III. Eragindako kalteak	40
a. Kalteak definitzen	40
i. Kalte ekonomikoak eta kalte moralak	41
ii. Kalteen kuantifikazio eta ordaingarritasuna	44
b. Ordaindutako elikagaien eta mantenuaren erreklamazioa	45
c. Kalteak seme-alabaren ikuspuntutik.....	50
Ondorioak	52
Bibliografia	54

LABURDURAK

KZ	Kode Zibila
EK	Espainiako Konstituzioa
PZL	Prozedura Zibilaren Legea
AG	Auzitegi Gorena
AGE	Auzitegi Gorenaren Epaia
PA	Probintzia Auzitegia
PAE	Probintzia Auzitegiaren Epaia
KAE	Konstituzio Auzitegiaren Epaia
LGUTL	Lagundutako Giza Ugalketako Teknikeri buruzko Legea
art.	artikulua
ZO	Zuzenbide Oinarria
op. cit.	<i>opus citatum</i> (aipatutako obra)
zenbk.	zenbakia
or./orr.	orrialdea/orrialdeak
jn.	jauna
and.	andrea

SARRERA

Azken 40 urteetan familian izan diren aldaketak azken mendeetako sakonenak eta nabarietak izan dira. “Familia tradizionaltzat” hartzen zen familia modeloa aldatu egin da, aldaketek familia-sistema osoari eraginez, gaur egun familia-bizitza ulertzeko erabiltzen ziren parametroak aldatzen dituzten eredu asko agertu direlarik. Era berean, familia hierarkia-irizpidearen ideia gainbehera eman da azken urteetako zuzenbidean, berdintasun- eta elkarre-irizpideekin ordezkaturik. Esparru horretan kokatzen dira mugimendu feministak edo emakumearen askapenerako mugimenduak.

Egia da lehenago moraltasun-arau bat egoteak galarazi egiten zuela senideek eragindako kalteengatik erreklamazioak egitea, baina orain, zalantzarik gabe, arau hori desagertu egin da. Izan ere, senideen arteko kalteengatik kalte-ordainei buruzko prozedurak duela hogeita hamar urte hasi ziren ugaritzen Espainian.

Familia-eredu tradizionalaren ideia irautea, auzitegietatik kanpo familia-arazoak ebazteko asmoa eta bizi diren pertsonen edo ahaide oso hurbilen aurka ekintza judizial bat jartzea eragozten duen moraltasun-araua ziren, besteak beste, Espainian urte batzuetara arte senideen arteko kalteengatik demandarik ez jartzeko arazoak. Hala ere, egoera hori aldatzen ari da, eta senideen arteko kalteen arloko demandak gero eta ohikoagoak dira gure auzitegietan.

Zuzenbidearen beste alor batzuetan ez bezala, seme-alabatasunaren gaiaren barnean izaera ilun eta delikatuak daude, esangura nabarmenekoak; pertsonarentzat eta familiarentzat duten garrantzi moral eta ondarezkoagatik, baita interes publikoagatik ere. Seme-alabatasun-erlazioak planteatzen dituen oinarriko arazo juridikoak batik bat hauek direla esan dezakegu: batetik, seme-alabatasuna ezartzeko edo finkatzeko moduari buruzkoak, kasu bakoitzean aita edo ama eta semea nor diren zehaztuta; eta, bestetik, kasuan kasuko harremanari eskubideen eta betebeharren eduki juridiko jakin bat esleitzeari dagozkionak. Horri aitatasunaren inguruko iruzurra gehituko bagenio, arazoak gero eta ilunagoak bihurtzen dira.

Lan honetan zehar, benetako aitatasun biologikoa ezkutatzeko sortzen dituen arazoak agerian jartzen saiatuko gara, dauden gorabehera guztiekin batera.

I. SEME-ALABATASUNA

a. Kontzeptua eta seme-alabatasun motak

Ezer baino lehen, lanean zehar munta duen gaietako bati buruz hitz egin behar dugu, hain zuzen ere, seme-alabatasunari buruz, edo beste era batera esanda, seme alaba eta gurasoen artean zuzenbideak eratzen duen lotura juridikoari buruz; filiazioari buruz, alegia. DÍEZ-PICAZO ETA GULLÓN autoreek adierazten duten bezala, seme-alabatasuna esaten zaio “pertsona batek, beste bat, edo batzuk, bere guraso gisa izatea egozten dion baldintzari, bai eta pertsona hori gurasoekin, edo bakar batekin, lotzen duen harreman edo loturari ere”¹. Beste alde batetik, definizio bat ematerakoan, LACRUZ BERDEJO juristak ematen diguna ere kontuan har dezakegu. Honen ustez filiazioa honako hau litzateke: “sortzaileen eta sortuen (gurasoen eta seme-alaben) artean dagoena, eskubideak, betebeharrak eta funtzioak biltzen dituena, Zuzenbideak jasotzen dituen erakunde juridiko eta gizatiar aberats eta konplexuenetako batean”².

Arlo juridikora igaro baino lehen, seme-alabatasuna egitate biologiko bat dela ikus dezakegu. Hasierako errealitate biologiko hori da, *a posteriori*, gure ordenamenduak jasotzen eta arautzen duena; beraien artean eskubide eta betebeharrak ezarriz. Hortaz, entitate juridikoa duen egitate biologikoa da, egitate naturala egitate juridikoan bilakatuz.

Indarrean dagoen Kode Zibilaren (hemendik aurrera KZ) 108 artikulua honako hau ezartzen du: “*Seme-alabatasuna naturaren arabera eta adopzio bidez gauza daiteke. Naturaren arabera seme-alabatasuna ezkontzazkoa eta ezkontzaz kanpoko izan daiteke. Seme-alabatasuna ezkontzazkoa da, aita eta ama elkarrekin ezkontuta daudenean. Ezkontzazko eta ezkontzaz kanpoko seme-alabatasunak, bai eta adopzio bidezkoak ere, ondore berberak sortzen dituzte, kode honen xedapenekin bat etorritik.*”

Artikuluaren idazketatik ondorioztatzen da seme-alabatasuna bi motatakoa izan daitekeela, hots: naturazkoa, zein adopziozkoa. Era berean, artikulua adierazten duen moduan, seme-alabatasun biologikoa ezkontzazko zein ezkontzaz kanpoko izan daiteke. Hala ere, bertan adierazi ez arren, adopzioa indibiduala eta bikoitza izan daitekeela

¹ DÍEZ-PICAZO, Luis eta GULLÓN, Antonio. *Sistema de derecho civil*, IV. Bolumena, 1. Liburukia, *Familia Zuzenbidea*, 12. argitalpena. Tecnos. Madril, 2018. 229. orrialdea.

² LACRUZ BERDEJO, José Luis (Egilekidea). *Elementos de Derecho Civil*. IV. Bolumena: *Familia*. Dykinson. Madril, 2010. 299 orrialdea.

kontuan hartuz, adopziozko seme-alabatasuna ere eman daitekeela ezkontza, zein ezkontzaz kanpoko bikoteen artean. Aurrekoa kontuan hartuz, bi oinarrizko ideia ondorioztatu daitezke: batetik, seme-alabatasun biologikoa sorkuntza-harreman baten ondorioz ematen dela, eta adopziokoa, ordea, legezko fikzio batez sortzen dela. Batak zein besteak efektu berdinak sortzen dituzte, ezberdintasun bakarra lotura juridikoa sortzeko moduan egonik.

Adopzioa legezko lotura izanik, gure ikerkuntza lanaren eremutik kanpo utziko dugu. Izan ere, ahaidetasun mota honetan ez dago lotura biologikorik, legeak ahalbidetzen duen seme-alabatasuna da hau, zeinari odolezko loturatik eratortzen den seme-alabatasunari aurrezagutzen zaizkion efektu berak esleitzen dizkio lege berak. Kasu hauetan, bi gurasoek jakin badakite beren seme-alaba izango den umea biologikoki beste guraso batzuen semea edo alaba dela, eta harekiko ez dutela inolako lotura biologikorik. Bistan da ez dagoela amaren aldetik aitatasunaren engainurik egiteko tokirik; hots, amak ezin duela aitaren odol-ahaidetasuna zalantzan jarri.

Honen ostean, Giza Ugalketa Tekniketatik eratortzen den filiazioa aipatu behar da. Egungo errealitateak, eta, bereziki, baliabide teknikoek, aitatasunaren esleipen faltsu bat egotea ahalbidetzen dute (sexu-harremanik eta desleialtasunik egon gabe)³. Hala gertatuko litzateke haurra laguntza bidezko ugalketa-tekniken bidez sortzen bada, non material genetikoa bikotearena ez den eta haurra berea dela sinestarazten bazaio.

Laguntza bidezko ugalketa-teknikak sortzean, lehenengo erregulaziotik aurrera, teknika horien ondoriozko filiazioa seme-alabatasun naturalaren barruan sartu izan da, lege berezitik eratorritako berezitasunekin.⁴ Lagundutako Giza Ugalketako Teknikei buruzko 20006ko maiatzaren 26ko 14/2006 Legearen (LGUTL) 7.1 artikulua printzipio orokor bat ezartzen du: lagundutako ugalketa-tekniken bidez jaiotakoen filiazioa lege zibilek arautuko dute, 8, 9 eta 10 artikuluetan ezarritako zehaztapenak salbuetsirik, alegia. Lege honek planteatzen duen gai garrantzitsuenetako bat teknika horiek erabiltzeagatik

³ Jaéngo 2015eko martxoaren 9ko PAEn demandatua den emazteak ezkontzaz kanpoko alaba izatea erabaki zuen, Crohn-en gaixotasunagatik tratamenduan zegoen senarrak ugaltzeko zailtasunak izateagatik. Epaiketan intseminazio artifizialaren bidez edo hirugarren batekin izandako sexu-harremanen bidez egin zuen zehazteari uko egin zion. Bertatik ondorioztatu zen laguntza bidezko ugalketa-teknikak erabili izan baziren, ezingo genukeela esan fideltasun printzipioa urratu zenik.

⁴ FEMENÍA LÓPEZ, Pedro J. *La determinación de la filiación «en interés del menor*. Dykinson. Madril, 2019. 63 or.

jaiotako seme-alaben filiazioa zehaztea da; 8. artikulua delarik teknika horiek erabiliz jaiotakoen filiazioaren zehaztapen legala arautzen duena.

Familia heteroparentaletan, teknika horien ondorioz jaiotakoen filiazioa bi oinarrik zehazten dute: erabilitako teknika mota (homologoa, bikotekidearengandik datozen gametoak erabiltzen direnean, edo heterologoa, emaileengandik datozen gametoak erabili behar direnean) eta bikotearen arteko ezkontza-elkarketarik dagoen ala ez. Horrela, teknika homologoak erabili diren ezkontza-elkarketetan jaiotakoen seme-alabatasuna zehazteak ez du inolako berezitasunik; seme-alaba ezkontzako izango da, KZren 116 artikuluan eta hurrengoetan ezarritako arau eta presuntzioen arabera.⁵ Aldiz, izatezko loturetan, LGUTLko 8.2 artikuluan arautzen da ugalketa-teknikak erabili aurretik ezkondu gabe dagoen gizon batek ernalketa bat emaile-ekarpenarekin egiteari adostasuna eman behar diola, baimendutako zentro edo zerbitzu batean aurkeztua izan behar den agiri baten bitartez. Teknika heterologoaren kasuan, adostasuna erabakigarria da, hori baita filiazioa zehazten duena⁶; izan ere, LGUTL egitate biologikotik aldentzen da, eta aita edo ama gisa ezartzen du teknika horiek aplikatzeko baimena eman diona⁷.

b. Filiazioaren oinarritzko efektuak

Filiazioaren edukiari dagokionez, seme-alabek jaiotze momentutik *ipso facto* dituzten eskubide eta betebeharrak batzuk zehazten dira, filiazioak bere ondoreak sortzen dituelako gauzatzen den unetik (KZ 112 art.).

Eztabaida dago filiazioa zehaztea deklarazio-izaera besterik ez duen, eta, ondorioz, seme-alabatasunaren ondorio juridikoak jaiotzaren unera atzeratu behar diren, edo, aitzitik, ondorio horiek zehaztapenetik bertatik gertatzen diren. Horrela, problematikaren inguruan bi ikuspuntu ezberdintzen dira. Batzuen ustetan ez da nahikoa sorkuntza soilarekin (egitate biologikoarekin) filiazioak ondorioak izateko, horretarako beharrezkoa delarik lege zehaztea⁸. Beste batzuen iritziz, aldiz, seme-alabatasuna sorkuntza egitateak

⁵ FEMENÍA LÓPEZ, Pedro J. op. cit. 63-65 orr.

⁶ HERRERA CAMPOS, Ramón. *Comentarios científico-jurídicos a Ley 14/2006. de 26 de mayo, sobre técnicas de reproducción humana asistida*. Dykinson. 2009. 112-114 orr.

⁷ MUÑOZ BENITO, Lucía. *La filiación derivada de técnicas de reproducción asistida*. REDUR 14/2016. ISSN 1695-078X. 236 or.

⁸ DE LA CÁMARA ÁLVAREZ, Manuel, *Comentarios al Código Civil, Tomo III, Vol 1º: Artículos 108 a 141 del Código Civil (2ª edición)*: “Seme-alabatasuna zehazteak ez du seme-alabatasuna frogatzeko funtzioa bakarrik betetzen; aitzitik, akzio paterno-filialetik eratorritako eskubideak egikaritu eta betebeharrak bete ahal izateko behar den baldintza betetzen du”.

osatzen du, ondorio guztiak izanik⁹, eta filiazioaren legezko zehaztapena sortutako efektu horien baieztapena dela¹⁰. KZren 112. artikulua interpretatzen badugu, seme-alabatasun biologikoak ondoreak sortzen ditu gertatzen denetik, hau da, semea edo alaba jaiotzen denetik, legez zehaztu ez bada ere. Horrek esan nahi du, arau hori eta egoeraren edukitza (KZren 113 art.) bateratzen baditugu, filiazio biologiko hori egoeraren edukitzarekin egiaztatu ahal izango dela, jada sortutako efektu horiek galdagarriak izateko.

Hori adierazita, filiazioaren ondorioei dagokionez, funtsean, honako gai hauei dagozkie: abizenak, elikagaiak, guraso-ahala, jarauntsi-eskubideak eta nazionalitatea.

KZren 109 art. jarraiki, **abizenak izateko** eskubidea dute. 40/1999 Legearekin, azaroaren 5ekoa, izen-abizenei eta horien ordenari buruzkoa, konstituzio-berdintasunaren printzipioa errespetatu nahian¹¹, 1981eko KZren 109 artikulua¹² modernizatu zen. Horrela, irizpide orokorra abizenak Erregistro Zibilaren Legean eta haren Erregelamenduan xedatutakoaren arabera zehaztea bada ere, guraso biak ados badaude, abizenen ordena alda dezakete Erregistroan inskripzioa egin aurretik; artikulua lehengo paragrafoa ez baita aginduzko araua, xedapenezkoa baizik¹³. Seme edo alaba nagusiarentzat abizenen hurrenkera inskribatu eta gero, hurrenkera hori aplikatuko da

⁹ BERIAIN FLORES, Irantzu. *La determinación judicial tardía de la filiación paterna y el retraso desleal de la madre al reclamar el reembolso de la obligación de manutención del hijo mayor de edad. Comentario a la STS de 29 de septiembre de 2016*. Cuadernos Civitas de jurisprudencia civil, ISSN 0212-6206, 104. zenbk., 2017, 150 or.: “Seme-alabatasuna jaiotzatik eragina duen egitate biologikoa da, nahiz eta haren legezko adierazpena geroagoko une batera atzeratu.”

¹⁰ RODRÍGUEZ ADRADOS, Francisco, *Las reformas del Código civil por Leyes de 13 de mayo de 1981 y 7 de julio de 1981, La filiación*, Instituto Nacional de Estudios Jurídicos, Madril, 1983, 134 or.: “Ez da lege zehaztapena, sorrera baizik, seme-alabatasuna eratzten duena; lege zehaztapenak izaera adierazlea du; horregatik, 112-1 artikulua, erreforma egin ondoren, neurritasun gutxiarekin ezartzen du ondorioen atzeraeragina”. Eta RAMS ALBESA, Joaquin J., *Elementos de Derecho Civil. Tomo IV, Familia*, Dykinson, Madril 2008, 305 or.: “Zehazteko bidea ez da hura eratzeko titulua, deklarazio titulu soil baizik, seme-alabatasuna existitzen zelako eta ondoreak sor zitzakeelako formalki egiaztatu ez arren. Horrela bakarrik da kongruentea 112 artikulua, esaten duenean filiazioak gertatzen denetik sortzen dituela ondorioak. Lege-zehaztapenak atzeraeraginezko ondorioak ditu.”

¹¹ TORRELLES TORREA, Esther. *La elección del orden de los apellidos por parte de los progenitores y los criterios de determinación a falta de acuerdo en la Ley de Registro civil 2011*. Revista Crítica de Derecho Inmobiliario, 753. zenbk., 185-222 orr. 2016.

¹² 11/1981 Legeak, seme-alabatasunari, guraso-ahalari eta ezkontzaren araubide ekonomikoari buruzko Kode Zibila aldatzekoak, KZren 109 artikuluari gehitu zion semeak edo alabak, adin-nagusitasunera heltzean, abizenen hurrenkera aldatzeko aukera izango zutela, gaur egun indarrean jarraitzen duelarik.

¹³ VERDERA SERVER, Rafael. *Comentario al artículo 109 del Código Civil en Comentarios al Código Civil, tomo I*. Tirant lo Blanch. 2013, otsaila. 1131-1143 orr.

geroko jaiotza-inskripzioetan, lotura bereko neba-arreben artean.

Zaintzeko eta elikagaiak izateko eskubidea ere badute, KZren 110 artikulua dioenez, gurasoek 2 funtzio horiek bete behar baitituzte nahitaez. Honek zuzenean aita edo ama izatearekin lotura du, non guraso-ahala osatzen duten eskubide eta ahalmenen artean, KZren 154. artikulua horiek elikatze eta jagoteko agindua jasotzen duen. Gainera, bi gurasoek elikagaiak eman behar dituzte guraso-ahala izan ez arren, KZren 110. artikulua arabera eginbeharrak bere horretan dirauelako. Horrenbestez, emantzipatu gabeko seme-alaba adingabeak elikatze betebehari ez dator guraso-ahaletik, seme-alabatasunetik baizik¹⁴.

Bestalde, seme-alabak adin-nagusitasunera iristen direnean edo emantzipatzen direnean, jarduteko gaitasun osoa eskuratzen dute (KZko 322 art.); horrek guraso-ahala azkentzea dakar (KZko 169 art.) baita gurasoen legezko ordezkartzaren amaiera ere (KZko 162 art.). Hala eta guztiz ere, mantenu-eginbeharra iraungitzeak ez du automatikoki funtzionatzen; aitzitik, adin nagusitasunetik harago ere luza daiteke (araubide juridikoa desberdina izango da), baldin eta betebehari hori emateko baldintzak betetzen badira. Mantenu horien prestazioa, familia-elkartasunaren printzipioan oinarritzen da, filiazio-loturetan oinarrituta eta oinarri konstituzional batek indartuta (EKko 39.3 art.). Horrela, gurasoengandik “mantenu gisa hartzen diren elikagaiak, gelak, arropak eta osasun-laguntzak izateko behar den guztia” eskuratzeko eskubidea dute, baita hezkuntzarako eta irakaskuntzarako beharrezkoa dena ere (KZko 142 art.).

Horrela, seme-alaba adin nagusien mantenu-erregimena (KZren 142 art. eta hurrengoak) eta seme-alaba adingabeen mantenu-betebeharra bereiz daitezke (KZren 110 eta 154 art.). Bereizketa horrek garrantzi berezia du, aurreikusitako araubidea, teoriarik, desberdina delako, besteak beste, betebeharraren sorrerari eta eraginkortasunari dagokienez. Izan ere, ahaideen arteko mantenu-betebeharrak, ahaidetasun-harremanaz gain, elikagaiak jasotzen dituenaren beharra eta mantenua ematera behartuta dagoenaren ahalmen ekonomikoa galdatzen ditu (KZko 146 art.); seme-alaba adingabeen mantenua, ordea, ez dago inolako berariazko beharrezkin lotuta, gurasoei beren seme-alabei era guztietako laguntza emateko duten betebeharraren hedapentzat hartzen baita (EKren 39.3 art.).¹⁵

¹⁴ BERROCAL LANZAROT, Ana Isabel. *La pensión de alimentos de los hijos menores de edad y los gastos extraordinarios*. Revista Crítica de Derecho Inmobiliario, 737 zenbk. 2013. 1820-1879 orr.

¹⁵ BERIAIN FLORES, Irantzu. *La determinación judicial...* op. cit.

Hala ere, mantenua emateko betebeharra amaitzen da semea-alabaren premia jokabide malkurretik datorrenean edo lanean edo ikasketetan arduratsua ez izateagatik (KZko 152.5 art.)¹⁶. Bereziki gure lanean esangura duen filiazioaren ondorioa da, engainatua izan den gizonak beretzat zituen seme-alabei emandako elikagaien erreklamazioa egiterakoan, alegia.¹⁷

Filiazioak, egoera zibil gisa, ahaidetasuna eta **guraso-ahala** sortzen ditu. Hau aita edota amaren jarduera bizia eta jardulea da, eta ezin da egikaritu seme-alabatasuna zehaztu arte, hau da, ezin da guraso-ahalik izan, ezta, ondorioz, ahal hori egikaritu ere, amatasuna edo aitatasuna ofizialki egiaztatzen ez den bitartean.¹⁸ Bestalde, guraso-ahaletik eta gainerako babes-eginkizunetatik baztertzen den gurasoaren kasuan, beti ere izango ditu seme-alabak zaintzeko eta elikagaiak emateko betebeharrak horiek (KZren 111 art.).

Azkenik, **oinordetza-eskubideak** ere badituzte, nahitaezko jaraunsle (seme-alabak eta ondorengoak euren guraso eta aurrekoei begira, KZren 807.1 art.) edo senipartedun diren aldetik (seme-alabak eta horien ondorengoak gurasoen eta gainerako aurrekoen oinordeko dira, KZren 931 art.). **Nazionalitatea** eskuratzea ere filiazioaren ondorio da, KZko 17 art. a) atalaren arabera, aita edo ama espainiarrarengandik jaioak Espainiako nazionalitatea esleitzen zaie, jatorriz espainolak diren aldetik.

Filiazioak seme-alabentzat izango dituen ondorioak berberak izango dira, seme-alabatasuna nola zehaztu den alde batera utzita, Kode Zibilaren 108.II artikulua arabera. Guztiak berdinak dira legearen aurrean, ezin delarik inolako bereizkeriarik egin jaiotzagatik (Espainiako Konstituzioaren 14 eta 39.1 art.¹⁹), horregatik ezkontza barrukoa

¹⁶BERROCAL LANZAROT, Ana Isabel. *La extinción de la prestación de alimentos de los hijos mayores de edad*. Revista Crítica de Derecho Inmobiliario, 777 zenbk. 2020. 479-529 orr.

¹⁷ Aitatasuna ezkutatzearen ondorioz emandako mantenuak eta elikagaiek eragindako ondare-kalte itzultzearen inguruko auziaren iltzea gauzatzekoa den akzioa zein izan behar den da: erantzukizun zibilekoa (KZren 1.902 art.) edo bidegabekoa dena kobratzekoa (KZren 1895 art.). Honek, gainera, erabateko lotura du KZren 112 art.aren filiazioaren atzeraeraginekin. Aurrerago aztertuko da.

¹⁸ GARCÍA PRESAS, Inmaculada. *La Patria Potestad*. Dykinson. Madril, 2013. 13-16 orr.

¹⁹ Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua:

Espainolak legearen arabera berdinak dira eta ezin da onartu diskriminapenik, jaiotze, sexu, erlijio edo beste baldintza edo egoera pertsonal edo sozialagatik.

Espainiako Konstituzioaren 39.1 artikulua:

[...] 2. *Botere publikoek, era berean, seme-alaben babespen osoa ziurtatzen dute, hauek legearen aurrean berdinak izanik jatorria alde batetara utziz, eta hauen amena berauon egoera zibila edonolakoa izanik. Legeak posibilitatuko du aitatasunaren ikerketa.*

3. *Gurasoek era guztietako laguntza eskaini behar diete semealabei nahiz ezkontzakoak nahiz ezkontzatik kanpokoak izan, haien adingabezaroan eta beste kasuetan legalki eratortzen denean.*

izan edo ez izan, edo seme-alabatasun naturala edo adopziozkoa izan, eskubide eta betebeharrak berdinak izango dituzte.

c. Seme-alabatasunaren froga eta zehaztapena

Filiazioaren frogari dagokienez, Kode Zibilaren 113 artikulua era orokorrean lau mekanismo onartzen ditu pertsona baten filiazioa frogatzeko: Erregistro Zibilean inskribatzea, legearen bidez zehazten duen agiri edo epaia, ezkontza-aitatasunaren presuntzioa eta, aurreko bitartekorik ezean, egoeraren edukitza. Seme-alabatasuna egiaztatze modu desberdinak zerrendatzen dira, guztiek balio bera izanik, egoera-educitza izan ezik, izaera subsidiarioa baitu. Era berean, seme-alabatasuna zehaztea ez da eraginkorra izango, baldin eta seme-alabatasun hori kontraesankorra bada.

Filiazioa **Erregistro Zibilean inskribatzea** da trafikiko juridikoan zehaztutako egoera zibil hori egiaztatze ohiko titulua. Argi geratu behar da Erregistroko inskripzioak eginkizun bikoitza duela: alde batetik, seme-alabatasun beraren elementu erabakigarria da, eta bestetik, filiazio guztiei dagokien berariazko helburua betetzen du, legitimazio-titulua baita. Inskripzioa da filiazioetik eratorritako eskubide, ahalmen eta ahalak (mantenua, oinordetza-eskubideak, guraso-ahala, etab.) egikaritzeko legitimatzen duena²⁰. Nahastea ematen da ez denean ezberdintzen gauza bat dela filiazioa zehazteko helburu duen froga (eta, alde horretatik, inskripzioak “bateratu” egiten du filiazioa zehazteko bete beharreko judizioz kanpoko froga-prozeduraren bidez lortutako frogarekin), eta beste gauza bat dela, jada zehaztuta dagoen filiazioaren froga. Kasu honetan gertatzen denez, inskripzioak balio du seme-alabatasuna zehazteko (ezkontzako) eta filiazio hori egiaztatze, dagoeneko zehaztuta dagoen filiazio gisa.

Kodeko 113 art.ak erreferentzia egiten dion **agiriak edo epaiak**²¹ ere funtzio bikoitza betetzen du: funtsean, seme-alabatasuna zehazten du, eta, aldi berean, dokumentu-dimentsioan, filiazioa zehaztu dela frogatzen du, eta, ondorioz, filiazioa bera. Horrela, bada, manuak hemen ere jarraitzen du lege-zehaztapenaren xede izan den filiazio baten frogari buruz.

²⁰ BERCOVITZ RODRIGUEZ-CANO, Rodrigo. *Manual de Derecho Civil. Derecho de Familia*. 4. argitalpena. Bercal S.A., 2015. 217 orrialdea.

²¹ Aipatzen den epaia, erreklamazio-akzio bat egikaritzen den prozesuari amaiera ematen diona da, betiere, noski, egintza hori onesten bada.

Honaino, 113. artikulua ez du zailtasunik aurkezten, ondoren hasten dira, arauak esaten duenean seme-alabatasuna **ezkontzako aitatasun-presuntzioaren** bidez ere egiaztatzen dela²². Doktrinaren korrante batek adierazten du presuntzio honek ez duela ezkontza-filiazioa frogatzen, baizik eta haren legezko zehaztapenean laguntzen duela; ez da legitimazio-titulu bat, dokumentu publikoa, epaia edo inskripzioa diren bezala.²³ Gehitzen dute, aitatasun-presuntzioa *per se* ez dela legitimazio-titulua, berak bakarrik ez baitu egiaztatzen seme-alabatasuna, emakume ezkonduaren amatasuna eta ezkontzaren egiaztapena behar dituen heinean.

Ezkontzako aitatasunaren presuntzioa, ez da hertsiki ez esleipen-titulua, ez legitimazio-titulua, batari eta besteari sarbidea errazteko modua baizik. RIVERO HERNANDEZek dioenez²⁴, desegokia dirudi 113.1 artikulua ezkontzako aitatasun-presuntzioaz egiten duen aipua, filiazioa frogatzeko modu autonomo gisa eta Erregistroko inskripzioaren, epai baten edo egoera-edukitzaren frogen maila berean jartzen duenean. Seme-alabatasuna frogatzeko bitarteko autonomo gisa aitatasunaren presuntzioa desegokia da, presuntzio hori ezkontza-filiazio osoa zehazteko beste pieza bat baino ez baita (115.1 artikulua aitortzen duenez).²⁵

Azkenik, **egoeraren edukitza** aipatzen da filiazio egiaztatzeke azken frogabidetzat. Gure Kodeak Zibilak egoeraren edukitza behin eta berriz aipatzen badu ere, ez du zehazten zer ulertu behar den halakotzat, edo, zehazkiago, zer zirkunstantziak balio duten hura taxutzeko eta haren existentzia baieztatu ahal izateko. Alde batetik, DIEZ PICAZO eta GULLÓN jaunak adierazi dute “edukitzaren” ideiak, “egoera zibilei eta seme-alabatasunari aplikatuta, zenbait egintza eztabaida ezini erreferentzia egiten diela, zeinen bidez itxura juridiko bat sortzen den, horrek balio duelarik, gutxienez hasieran edo behin-behinean, islatzen duen errealitatea ezartzeko edo deklaratzeko”²⁶.

²² ALBALADEJO GARCIA, Manuel. *Comentarios al Código Civil. Tomo III, Vol 1º: Artículos 108 a 141 del Código Civil (2ª edición)*. Edersa. ISBN: 8471302160. Madril, 2004.

²³ LLEDÓ YAGÜE, Francisco eta MONJE BALMASEDA, Oscar. *Las relaciones paterno-filiales, adopción y potestad parental*. Dykinson. ISBN: 978-84-9148-145-4. 2007. 25-31 or.

²⁴ Era berean, ALBALADEJO GARCIAk 113. artikulua testuinguruan ezkontzako aitatasun-presuntzioa aipatzea desegokia dela uste du, aitatasun-presuntzioa seme-alabatasuna zehazteko bidean baino ez delako eraginkorra; izan ere, seme-alabatasun hori oinarritzen da nahitaez egiaztatu beharreko premisa batzuetan: ezkontzan, emaztearen amatasunean eta semearen jaiotzan. (ALBALADEJO GARCIA, Manuel. op cit. 112-114 art.en iruzkina)

²⁵ RIVERO HERNANDEZ, Francisco (egilekidea). *El nuevo régimen de la Familia, II Filiación, patria potestad, economía del matrimonio y herencia familiar*. Civitas, Madril, 1981, 83-84 orr.

²⁶ DÍEZ-PICAZO, Luis eta GULLÓN, Antonio., op. cit., 234 orrialdea.

Bestalde, auzitegiek ezarritako doktrinaren egoeraren edukitzaren definizio ugari aurki daitezke, hala nola 2018ko maiatzaren 9ko 267/2018 epaiarena, non Auzitegi Gorenako Arlo Zibileko Salak honako hau esan baitzuen (2. ZO)²⁷: *“Egoeraren edukitzaren kontzeptua quaestio iuris da, (...) Legeak edozein interesdun legitimatzeko oinarri gisa ezartzen duen kontzeptua hau hautemateko, egitate jakin batzuk egon behar dira, egoeraren edukitzaren elementu desberdinak (nomen, tractatus, fama) integratzen dituztenak, seme-alabatasun-itxura bat osatu behar dutenak, hau da, ahalak eta betebeharrak etengabe erabiltzearen ondorioz sortutako filiazio itxura egon behar da. Beraz, beharrezkoa da gertaera publiko errepikatuak eta kateatuak egotea, eta horien ondorioz seme-alabatasun-harreman publikoa izatea.”*

Hala ere, Auzitegi Gorenak 1988ko martxoaren 10ean emandako epaia da jatorriz egoeraren edukitza definitzeaz arduratu zena. Epaiaren 1. ZOan esaten zenez, egoeraren edukitza *“kontzeptu publiko bat da, non seme edo alaba baten aita natural gisa hartzen den, kontzeptu hori aitaren beraren edo bere familiaren egintza zuzenen bidez eratzten dena, benetako errekonozimendu guztiz boluntario, aske eta espontaneoaren erakusle”*.²⁸ Era apalago batean esanda, egoeraren edukitza norbaiten semea edo alaba izatearen itxura izatean datza, biologikoki izan gabe. Ondorioz, egoeraren edukitza dago pertsona batek seme edo alaba gisa etengabe era publikoan onartzen duenean, amaren familiaren, aitaren familiaren eta gizartearen aldetik.

Gauzak horrela, ikusi dugu filiazioaren froga dela *“prozesuan proposatu eta praktikatzten den bidea, hura egiaztatze eta haren zehaztapen judiziala eta estatu-titulu baten sorrera edo zuzenketa eragiteko”*²⁹. Zalantzarik gabe, seme-alabatasunaren frogak garrantzi handia du ondorio legalak gertatzeko; adibidez, aita testamenturik egin gabe hiltzen bada, seme-alabatasuna frogatu beharko da (jaraunspena eskatzeko, hartzaileak bere seme-alaben alde egindako bizitza-asegurua eskatzeko, etab.).

KZko 113 artikulua seme-alabatasuna egiaztatze bideak arautzen baditu ere, **filiazioa zehazteko** legeak eskaintzen dituen bideak KZko 115 art.tik 126 art.ra bitartean arautzen dira, ezkontzako eta ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna ezberdinduz.

²⁷ 2018ko maiatzaren 9ko Auzitegi Gorenaren Epaia, 267/2018 zenbk., <https://vlex.es/vid/721741809> (azken aldiz ikusia: 2021eko urriaren 9an).

²⁸ 1988ko martxoaren 10eko Auzitegi Gorenaren Epaia, 195/1988 zenbk., <https://vlex.es/vid/211955387> (azken aldiz ikusia: 2021eko urriaren 9an).

²⁹ LACRUZ BERDEJO, José Luis, op. cit. 608 or.

Hala nola, gurasoengandik datorren **ezkontzazko seme-alabatasuna** legearen bidez zehaztuko da jaiotza-inskripzioaren bidez, gurasoen ezkontzari buruzko inskripzioarekin batera, edo epai irmo bidez (KZ 115 art.). Era berean, filiazioa egiaztatzeke bi moduak aipatzen ditu, hau da, judizioz kanpoko zehaztapena eta zehaztapen judiziala. Lehenari manuairen 1. atala dagokio, eta bigarrenari 2. atala espresuki esaten baita filiazioa epai irmoaren bidez zehazten dela, eta hipotesi hori pentsa daiteke soilik epai horrek seme-alabatasuna zehaztera bideratutako erreklamazio-akzio bat xedatzea helburu duenean³⁰.

Judizioz kanpoko zehaztapena da jorratuko duguna, azterketaren objektu den aitatasunaren iruzurraren kasuetan arazoak sortzen direnean aitatasunaren esleipeneko errakuntzagatik ematen direlako, hortaz, kaltetuek aitatasuna aurkaratu ohi dute, eta ez, aldiz, hura erreklamatu.

Ezkontza-filiazioa judizioz kanpo zehazterakoan, inskripzioak funtzio bikoitza duela ikusi dugu: seme-alabatasuna zehaztu (ezkontzakoa) eta zehaztutako filiazio hori egiaztatu. Zehaztapenari dagokionez, 115.1 art.ak esaten duenez, “*jaiotza-inskripzioaren bidez, gurasoen ezkontzari buruzko inskripzioarekin batera*”, ondorioztatzen da bi inskripzioak beharrezkoak direla. Jaiotza-inskripzioak ezkontza-filiazioa zehaztu ahalko du betiere idazkunean bertan ezkontza inskribatuta badago; izan ere, argi dago jaiotza-inskripzioak, besterik gabe, ezin duela ezkontza-filiazioa edo beste seme-alabatasun bat zehaztu.

Ezkontza inskribatu ez bada, eta filiazioa ezkontza-filiaziotzat zehaztu bada, modu irregularrean zehaztu da, 115.1 artikularen arabera, ezkontza ez inskribatzeak eragotzi egiten duelako seme-alabatasuna zehaztutzat jotzea. Hala ere, zehaztapena erraz lortuko da *a posteriori* ezkontza inskribatuz, atzerapenarekin bada ere; horretarako, ezkontza modu erlijiosoan egin bada, nahikoa izango da eliza aitortenaren ziurtagiria aurkeztea (KZko 63 art.), eta modu zibilean egin bada, inskripzioa espediente bidez egin ahal izango da (akta egin ez bada) (Erregistro Zibilaren Erregelamenduaren 249 art.).

Jaiotza-inskripzioa Erregistro Zibileko arduradunak egindako erregistro-idazpena da; jaiotza egitatearen, jaiotza gertatu zen egunaren, orduaren eta lekuaren, identitatearen, sexuaren eta, hala badagokio, inskribatuaren filiazioaren berri ematen duena (Erregistro Zibilari buruzko 20/2011 Legearen 44.2 art.). Jaiotzak ondore zibilak sortzen ditu

³⁰ DE LA CÁMARA ÁLVAREZ, Manuel. op. cit. *Capítulo IV. La determinación extrajudicial de la filiación matrimonial. Artículos 112 a 114.*

gertatzen denetik, baina horiek erabat aitortzeko, beharrezkoa da Erregistro Zibilean inskribatzea. Beraz, jaiotzaren inskripzioztat hartuko da betebeharra duten pertsonen erregistroko arduradunei horren berri emateko egintza.³¹

Aurretiaz aipatu bezala, ezkontzaren aldeko presuntzioa dago, amaren senarraren aitatasun-presuntzioa, alegia. Antzinako *pater vero is est quem nuptiae demonstrant* araua³², edo, beste era batera esanda, aita amaren senarra delako ustea, KZren 116. artikuluan islatzen da, non honako hau esaten den: “*seme-alabak jaio badira ezkontza egin ostean, eta ezkontza hori desegin edo ezkontideak legez nahiz egitez banandu eta hurrengo hirurehun egunak igaro baino lehen, uste da horiek senarraren seme-alabak direla*”. Hots, aurre suposatu egiten du etenik gabeko ezkontza-harreman batean jaiotako seme-alabak ezkontza horretakoak direla, eta, beraz, ezkongaiak beren gain hartu behar dituztela umearen jaiotzarekiko betebeharrak juridiko guztiak. Era berean, presuntzioaren eraginkortasun automatikoak ezinbestean dakar amaren senarraren aitatasuna inskribatzea eta ezkontza-filiazioztat kalifikatzea.³³

DÍEZ-PICAZO eta GULLÓN autoreek presuntzio honen inguruan adierazten dute “uste dela aita dela sortze-prozesuaren une probablean amarekin sortzaile-ekintza burutu duena, eta hori horrela dela ordenamendu juridikoa zentzuzkoa den ildoarekin konformatzen delako”³⁴. Horrela, aitatasuna aurkaratzeko burutzen diren prozesu gehienetan, lehenengo momentu batean aitatzat hartu izan den gurasoari sinestarazi zaionean bera zela aita-biologikoa, aitatasun-presuntzioari errua egozten diote bai amaren engainuari, bai presuntzio honi.³⁵

Hala ere, semea edo alaba jaio bada ezkontza egin eta hurrengo ehun eta laurogei egunetan, senarrak ezerezean utz dezake presuntzioa, horren aurkako aitorten kautoa³⁶

³¹ Espainiako Justizia Ministerioa.

Ikus hemen: <https://www.mjusticia.gob.es/es/ciudadania/tramites/inscripcion-nacimiento> (azken aldiz ikusia: 2021eko azaroaren 20an)

³² “*Quia semper certa est, etiam si vulgo conceperit; pater vero is est, quem nuptiae demonstrant*” Digestok (D. 2,4,5) Paulori egozten diona. (DUPLÁ, Teresa. *El presente del pasado: el principio mater semper certa est y su reflejo en la actual legislación sobre reproducción humana asistida*. RIDROM. Revista Internacional de Derecho Romano. Bartzelona, 2019. 290 orrialdea.)

³³ BERCOVITZ RODRIGUEZ-CANO, Rodrigo., op. cit., 218 orrialdea.

³⁴ DÍEZ-PICAZO, Luis eta GULLÓN, Antonio., op. cit., 236 orrialdea.

³⁵ 1999ko uztailaren 22ko 687/1999 AGEN, kasazio-errekurtsoan auzi-jartzaileak adierazten du semetzat zuen mutikoaren aitatasuna eman zitzaiola, ezkontzak zirauen bitartean jaio zelako, eta, horregatik, berak aitatasun-itxura horri zegozkion betebeharrak bere gain hartu zituela.

³⁶ RIVEROren ustez (op. cit., 29 or.), kautoa apokrifoen kontrakoa baino ez du esan nahi, eta, ez dela beharrezkoa, bere ustez, «forma berezi edo publikorik» erabiltzea.

formalizatzen badu erditzearen berri izan eta hurrengo sei hilabeteetan zehar. Salbuespen gisa har daiteke senarrak esanbidez edo isilbidez aitatasuna aitortzea, edo, ezkontza egin aurretik, senarrak jakitea emaztea haurdun dagoela. Azken kasu horri dagokionez, salbuespen gisa har daiteke aitorten kautoa senarraren eta emaztearen adostasunarekin formalizatzea ezkontzaren aurretik nahiz horren ondoren, betiere, semea edo alaba jaio eta hurrengo sei hilabeteetan (KZko 117 art.).

Ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna, berriz, legearen bidez zehaztuko da: Erregistro Zibileko arduradunari testamentuan edo beste agiri publiko batean egindako aitortenaren bidez, Erregistro Zibilari buruzko legeriaren arabera, espedientearen izapideak egin, eta espediente horretan emandako ebazpenaren bidez, epai irmo bidez, edo amari begira, jaiotza-inskripzioan amarengandiko seme-alabatasuna agerraraziz, inskripzio hori egin denean epearen barruan eta Erregistro Zibilari buruzko Legeak xedatzen duenaren arabera (KZ 120 art.).

Ondorioz, ezkontza-filiazioa inskribatzeko, dagokion presuntzioa oinarritzen duten egitateen egiaztapena bakarrik (ezkontza eta adierazitako epeak) behar den bitartean; ezkontzaz kanpoko seme-alabentzat, berriz, semea edo alaba propiotzat hartzen duen *gurasoaren* adierazpena behar da. Bereizketa horren oinarria da legegileak ezkontza-betebehartzat ezarri duen ezkontza-bizikidetzak aukera ematen duela sexu-bizikidetzaren egitatea auresuposatzeko, zeinak, ondorioz, ugalketa eta ondorengo jaiotza eragiten dituen. Hala eta guztiz ere, BERIAIN FLORES autoreak dioenez, kontuan hartuta izatezko bikoteak ezkontzaren ordezkotzat familia-unitatetzat hartzeko (bikotearen eraginkortasunerako), lotura bi pertsonen arteko bizikidetzaharreman eksklusiboan oinarritzea eskatzen duela, ez da ulertzen zergatik ezin den presuntzio-sistema bat antolatu elkarketa horietarako³⁷.

VAQUERO PINTOK dioen bezala³⁸, ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna zehazteko bideak “itxuraz konplexuagoak dira, horren atzean dagoen errealitate sozial desberdina kontuan hartuta; ezkontzarik ez dagoenez, ez da senar-emazteen aitatasunaren presuntzioa gertatzen, azken batean, bizikidetzaharreman eta elkarbizitza-presuntzioan oinarritzen dena (KZko 69 art.)”. Beraz, bere ustez, “arauketak ideia hau du abiapuntu: ezkontza falta

³⁷ BERIAIN FLORES, Irantzu. *La adopción del hijo del cónyuge o de la pareja*. Tirant Lo Blanch. Valentzia, 2014. 158 or.

³⁸ VAQUERO PINTO, M.^a Jose. *La filiación extramatrimonial*. M. YZQUIERDO TOLSADA eta M. CUENA CASAS, *Tratado de Derecho de Familia*, vol. VI. Thomson Reuters Aranzadi. Nafarroa, 2016. 264 or.

denean, seme-alabatasuna lege zehaztea ez da hain erraza". Halaber, adierazten da ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna lege zehazteko bost moduetatik garrantzitsuen aitorpena dela.

d. Seme-alabatasuna aurkaratzeko akzioa

MARTÍNEZ DE AGUIRREK RIVERO HERNÁNDEZEN hitzetan adierazi duenez, filiazio-akzioak dira organo jurisdikzionaletatik seme-alabatasunari buruzko erabaki bat lortzea helburu dutenak; zehaztuta ez badago hura adierazteko (erreklamazio akzioa³⁹), edo formalki ezarrita dagoena ukatzeko (aurkaratze akzioa), alegia.⁴⁰

Seme-alabatasuna aurkaratzeko akzioari dagokienez, Kode Zibilak 136 artikulutik 141 artikulura arautzen du, ezkontza-filiazioa aurkaratzeko araubidea eta ezkontzaz kanpoko filiazioaren bereiz daitezkeelarik.

Horrela, ezkontza filiazioaren baitan, KZko 136 artikulua senarraren legitimazioa arautzen du filiazioa aurkaratzeko. Artikulu honi dagokionez, konstituzio kontraktat jo aurretik zera zioen senarrak aitatasuna aurkaratzeko akzioa egikari zezakeela *seme-alabatasuna Erregistro Zibilean inskribatu eta hurrengo urtebetean zehar*, baina epe horren zenbaketa ez zela hasten, senarrak jaiotzaren berri ez zuen bitartean. Ondoren, bigarren atalean adierazten zenez, senarra hiltzen bazen aurretiaz adierazitako epea amaitu baino lehen, akzioa jaraunse bakoitzari zegokion, epe hori bete arte. Berdin-berdin, artikuluan *in fine* arautzen zen senarra jaiotzaren berri izan gabe hiltzean, urtebete zenbatu beharko litzatekeela jaraunseak horren berri zuenetik.

Hori horrela, 2005eko maiatzaren 26ko Konstituzio Auzitegiaren Epaiari (KAE 138/2005) eta 2015eko Lege erreformari (26/2015) erreferentzia egin behar diegu. Epai horrek Konstituzioaren aurkakotzat jo zuen Kode Zibilaren 136. artikuluko 1. paragrafoa⁴¹, adieraziz Espainiako Konstituzioaren 24.1, 39.2 eta 10.1 artikulua urratzen zirela. Hau da, Auzitegiak uste du akzioa tarteratzeko ezarritako urte beteko mugak urratu egiten duela senarrak duen babes judizial eraginkorrerako eskubidea, bateraezina dela

³⁹ Tamalez, lana egiteko ezarritako hedadura mugak kontuan hartuta, alderdi hau ezin izan da nahi zen sakonerarekin aztertu. Etorkizuneko ikerketetarako utzi beharko litzateke.

⁴⁰ MARTÍNEZ DE AGUIRRE ALDAZ, Carlos. *Curso de Derecho Civil, vol. IV Derecho de Familia, La filiación*, 5. edizioa. Madrid, 2016. 355 or.

⁴¹ Nahiz eta aipatutako errekursoaren helburu bakarra KZko 136 art.ren konstituzio-kontrakotasuna ebatzea izan, arrazoibide bera erabili behar da seme-alabatasuna aurkaratzeko gainerako kasuetan (KZko 137, 138 eta 140. art.etan), akzioa aurkezteko epe jakin bat ezartzen dutenean.

aitatasunaren ikerketa ahalbidetzeko konstituzio-aginduarekin, eta, honekin lotuta, pertsonaren errespetua eta duintasuna ere urratzen duela; izan ere, murrizketa hori ez baita proportzionala lortu nahi den helburuarekiko, hots, aitortutako ezkontza-filiazioari ahalik eta egonkortasun handiena ematea.⁴²

Azkenik, nahiz eta konstituzio-kontrakotasuna adierazten den, ez da deklaritzen epaitutako manuaren deuseztasuna. Auzitegiak, filiazioari dagokionez, dei egiten dio berriro ere legegile arruntari (6. ZOn), hark zehatz dezan segurtasun juridikoaren mesedetan (EKren 9.3 art.) aurreikusitako ezkontzako aitatasuna aurkaratzeko akzioa gauzatzeko epearen *dies a quo*, babes judizial eraginkorrerako eskubidea errespetatzen duten kanonen barruan (EKren 24.1 art.).⁴³

2015eko Lege erreformari (26/2015) dagokionez, honen 2.4 artikulua filiazio-akzioei buruzko arauak aldatu zituen KZko 133.1 eta 136.1 artikuluen arauketa moldatzeko (ezkontzaz kanpoko filiazioa erreklamatzeko eta ezkontzako aitatasuna aurkaratzeko), 273/2005, 52/2006, 138/2005 eta 156/2005 KAek konstituzio aurkakotzat jo eta gero.⁴⁴ Horrela, KZko 136 artikulua ezartzen du: “1. *Senarrak aitatasuna aurkaratzeko akzioa egikaritu ahal izango du urtebeteko epean, seme-alabatasuna Erregistro Zibilean inskribatzen denetik zenbatzen hasita. Hala ere, epea ez da luzatuko senarrak jaiotza ez dakien bitartean. Senarra jaiotza jakin gabe hiltzen bada, oinordekoak ezagutzen duenetik zenbatuko da urtea.* 2. *Senarrak, seme edo alaba gisa inskribatu denaren jaiotzaren berri izan arren, aitatasun biologikorik eza ezagutzen ez badu, urtebeteko epea horren berri duenetik hasiko dela zenbatzen.* 3. *Senarra aurreko lerrokatetan adierazitako epea igaro baino lehen hiltzen bada, jaraunsle bakoitzari dagokio akzioa, epe hori osatzeko falta den denborarako.*”

Ezkontza filiazioa aurkaratzeko akzioa tarteratzeko legitimazioa jarraituz, KZren 137 art.ri dagokionez, semeak edo alabak aitatasuna aurkara dezake seme-alabatasuna inskribatu eta hurrengo urtebetean barrena egoera-edukitza egonez gero. Semea edo alaba adingabea edo ezgaia izanez gero, urte beteko epe horren zenbaketa hasten da, seme edo

⁴² BERIAIN FLORES, Irantzu. op. cit. 165-166 orr.

⁴³ BARBER CÁRCAMO, Roncesvalles. *La declaración de inconstitucionalidad de los arts. 136.1 y 133.1 CC (LEG 1889, 27)*. “La legitimación del progenitor para reclamar su paternidad” artikuluan. Revista Doctrinal Aranzadi Civil-Mercantil. 11/2006 zenbk. Aranzadi, Zizur Txikia. 2006.

⁴⁴ MONJE BALMASEDA, Oscar. *Comentario al párrafo primero del art. 136 cc*. “Estudio sistemático de la Ley 26/2015” liburuan. Dykinson. Madril, 2018. 456-458 orr.

alaba horrek adin-nagusitasuna edo legezko gaitasun osoa lortzen duenetik. Seme-alabatasuna inskribatu eta hurrengo urtebetean zehar, guraso-ahala duen amari, edo, bestela, Fiskaltzari dagokio akzioa egikaritzea, seme edo alaba adingabe edo ezgaiaren intereserako. Aldiz, familia-harremanetan ez badago egoera-edukitzarik, edozein unetan jar dezakete demanda semeak, alabak edo horren jaraunsleek.

Era berean, KZko 139 art.ak seme-alabatasuna aurkaratzeko aukera aitortzen dio amari, betiere egiaztatzen badu erditzea ustearazi dela edo semearen edo alabaren identitatea egiazkoa ez dela.

Ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna aurkaratzeari dagokionez, KZ 140 artikulua arautzen du, lege-teknizismo bat kontuan hartu behar dugularik: egoeraren edukitza, alegia. Egoeraren edukitza badago, aitatasuna aurkaratzeko akzioa iraungi egingo da seme-alabak, filiazioa inskribatuta, egoeraren edukitza izan eta 4 urtera; hau da, urtebetekoa izan beharrean, 4 urteko preskripzio epea dago. Semeak edo guraso gisa agertzen denak egikaritu ahal izango du akzioa. Egoeraren edukitzarik ez badago, aldiz, ezkontzaz kanpoko aitatasuna edo amatasuna aurkaratu dezakete filiazio hori dela eta kaltetuak izan direnek.

Gauzak horrela, senarraren aitatasun-presuntzioaren betekizunak egiaztatu ondoren, senarraren aitatasun biologiko ezaren frogapenak ez du garrantzirik judizioz kanpoko mailan: ezinbestekoa da aurkaratze-akzioa gauzatzea, 136 eta hurrengo artikuluek diotenez.⁴⁵

Hau ikusi eta gero, akzioa aurkezteak izango lituzkeen **ondorioak** zeintzuk diren aipatu behar dira. Kode Zibilak berez ez ditu aipatuko ditugun ondorioak zuzenean arautzen, filiazioa aurkaratzearen atalean solik aurkaratze akzioa tarteratzeko legitimazio aktiboa nork duen arautzen baitu. Ezer baino lehen, behin seme-alabatasuna aurkaratzeko akzioa tarteratuta eta onartuta, emango litzatekeen lehenengo ondorioa filiazio loturaren apurketa da. Horrek berekin ekarriko luke gurasoak jada berea ez den eta aurretiaz seme-alabatzat zuen umearikiko zituen betebeharren existentzia eza. Baina, zer gertatzen da ordura arte emandako mantenu eta elikagaiekin? Seme-alabatasunaren legezko zehaztapenak atzeraeraginezko ondoreak dituen bezala (KZ 112 art.), seme-alabatasuna aurkaratzeko akzioak atzeraeragina izan dezake ere? Geroago, amak eragindako engainua

⁴⁵ BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, Rodrigo. *Tratados, Comentarios y Practicas Procesales*. Tirant Lo Blanch. 1. edizioa. 2013. 1217 or.

jasan duten ustezko aitek bere betebehartzat hartu zituzten emandako elikagaien eta mantenuaren ordaina erreklamatzeko aukera aztertuko da.

II. ERANTZUKIZUN ZIBILA

Erantzukizun zibilaren baitan, hura sortarazten duen **portaera** da lehenik eta behin aztertu beharrekoa, ostean **kontratuz kanpoko edo kontratuzko erantzukizunaren** azterketan murgiltzeko, baita **Espainiar jurisprudentziak** hartutako norabidea zein den aztertzeko.

a. Portaeraren zehaztapena

Portaeraren zehaztapenaren baitan, portaera ondo finkatu behar dugu, hori abiapuntutzat hartuta ondorioztatuko baita: nor den portaera hori aurrera eramaten duena, eta beraz, horren erantzulea, nortzuk diren erantzukizuna eskatu dezaketen kaltetuak, zer den portaera hau egikaritzeak eragiten duena, zein bide erabili daitekeen sortutako kalteen erantzukizuna eskatzeko, etab.

Hasteko, zigorgarria den **portaerari** dagokionez, hau amak burutzen duen aitatasunaren inguruko engainua da. Amak familia eremuko printzipioez baliatuz eta bere senarrari edo bikoteari desleiala izanez, jaio berri den umearen aita dela sinestaraztea eragiten duen engainua, alegia. Emakume horrek ez ditu umearen aitatasunaren inguruko zalantzak azaleratu, ez du adierazi bere ondoan duen gizona beharbada ez dela ume horren aita, eta osotasunean iruzur egin du.

Erantzukizun zibilaren baitan, gerta daiteke **erantzulea** kaltearen egilea bera izatea, edo erantzukizuna kaltearen egilea ez den beste pertsona batena izatea; kanpoko egitateengatiko erantzukizuna deritzona⁴⁶. Aztertzen dugun egoeran, lehenengoa ematen da, ama da erantzulea; bera da konfiantzazko erlazioa urratuz engainua eta nahastea eragin duena, eta, beraz, kalteengatik erantzun behar duena. Hala ere, kasuan kasu aztertu behar dute auzitegiek hirugarren bat ere erantzule zibila izatearen posibilitatea. Hirugarren hori aita biologikoari litzateke, batzuetan hasieratik egoeraren inguruan jakitun agertzen dena. Hots, demanda amaren aurkakoa ez ezik, aita biologikoaren aurkakoa ere izan daiteke, biek kalteengatik erantzun dezaten. Auzitegien ustetan, hirugarrenarena erantzule da aitatasuna ezagutzen zuela behar bezala egiaztatutzat jotzen

⁴⁶ GONZÁLEZ HERNÁNDEZ, Rut. *Responsabilidad extracontractual y contractual: barrera entre ambas*. Anuario Jurídico y Económico Escorialense, XLVI (2013). ISSN: 1133-3677. 3 or.

denean, eta, akats baten ondorioz, aita biologikoa zela uste zuenak ez zegozkion betebeharrak bere gain hartzea ahalbidetzen duenean.

Jarraitzeko, erantzukizuna eskatu ahal duten **kaltetuei** dagokionez, amaren engainua bai ezkontideari, bai egitatezko bikoteari eragiten dion engainua izanik, ezin ditugu ezkontza lotura dagoen kasuak edo egitatezko bikoteen kasuak ezberdindu, bere horretan, engainua bientzat berdina baita: senarra edo bikotea denari jaio berri den umea berea dela sinestaraztea, jakinik ez dela gizon horren seme-alaba edo berea izan ez daitekeela jakin badakielarik. Ez hori bakarrik, engainua berdina izanik, ondorioak ere berdinak dira ezkontidearentzat eta izatezko bikotearentzat, jarraian ikusiko dugunez. Hots, bete betean eragiten die bai ezkontideari, bai izatezko bikoteari eta horregatik izaten dira batik bat erantzukizun zibila eskatzen duten auzi-jartzaileak.

Era berean, jaioberriak ere jasan du bere amaren engainua, kaltetua suertatzen delarik. Izan ere, bere aitaren eta familia adarren inguruan, edo berdina dena, bere jatorriaren inguruan iruzur egin zaio. Engainuak dirauen egoera batzuk denbora gutxikoak izan daitezke, baina, beste batzuetan, ordea, urteak eta urteak dira umea eta bere aita biologikoa ez den gizona elkarrekin daudenak, biak engainu beraren biktima. Horrela, umea ere izan daiteke akzioa egikaritzeko legitimatua, baita kalteengatik ordaina eskatu dezakeena (hurrengo kapituluan aztertuta). Aitatasuna aurkaratzeko akzioa tarteratzeko eskumena duen bezala (KZ 137 art.), amari kalteengatik erantzuteko dagokion prozesua martxan jarri dezake, hala ere, praktikan ez da momentura arte horrelako kasurik ikusi.

Azkenik, eztabaidagarria den aita biologikoaren kasua dugu. Azken honi dagokionez, iruzurraren onuraduntzat har daiteke (ama bezala, bidegabeko aberasteko arrazoiengatik), edo, bestalde, kaltetutzat; betiere, gizon horrek ez badaki sexu-harremanak izan zituen emakumeak bere bikotekideari semearen aitatasunari buruz iruzur egiten ziola, hau da, ez duenean aitatasuna ezkutatzearen berri ezta bera dela benetan semearen aita biologikoa. Horrelako kasuetan uler dezakegu hirugarren honek bere seme-alabarekin izan zitzakeen galdutako bizitza-urteak daudela; normalean haurtzaroa izaten dena, haur baten funtsezko etapetako bat, non gurasoen figurak paper garrantzitsua jokatzen duen. Gainera, gero oso konplexua da galdutako denbora hori berreskuratzea. Gehienetan horrelako kasurik gertatu ez denez, eta normalean epaietan hirugarren horri erreferentzia egiten zaionean iruzurraren berri duen pertsona denez (gezurrean laguntzen duen gertuko pertsona ere izaten dena), ez dugu kaltetutzat hartuko, baizik eta jurisprudenzia zabalean aurkitzen

dugun bezala⁴⁷, aitatasuna ezkutatzeaz baliatu den pertsona gisa, “ekonomikoki onuradun” bezala.

Gauzak horrela, amaren engainuak **eragiten** du: alde batetik, Erregistro Zibilean jaiotze berriaren inskripzioa burutzean senarrak edo bikoteak beren burua aitatzat inskribatzea, eta beste aldetik, aita biologikoa ez den gizon honek bereak ez diren seme-alabatzat dituen umeei ustez dagozkien guraso ahalak ezartzen dituen betebeharrak burutzea.

Inskripzioari dagokionez, aurreko kapituluan azaldu bezala, haurra jaiotzen denean gurasoak (biak egotekotan) behartuta daude hura Erregistro Zibilean inskribatzera, jaiotzak sortzen dituen ondore zibilak erabat aitortzeko. Hortaz, engainatua fede onez haurraren aitatzat inskribatzen da, jaioberriaren aita gisa ager dadin ondorio guztietarako.

Guraso ahalaren baitan, Kodeak potestate batzuk ezartzen ditu, zeintzuei obedientziatzko eta errespetuzko betebeharrak erantzuten dizkiete (KZko 155 art.); pertsona batek beste baten gain egikaritutako duen ahalmen bat jartzen du martxan. Gaur egun, guraso-potestatearen erakundea edo tutoretza *officium* bat bezala jartzen dira, familiaren interesa begiratu eta zaintzeko asmoarekin eta, beraz, betebeharrak-kutsu nagusi batekin.⁴⁸ Zentzu honetan, guraso-ahalaren eginbehar eta ahalmenak hurrengoak lirateke: alde batetik, eremu pertsonalaren baitan, seme-alabak jagotea, eurekin egotea, horiei mantenua ematea, seme-alabak hezteak, eta, berebat, seme-alaba horiei oso-osoko heziketa ematea. Beste alde batetik, ondare-eremuaren baitan, seme-alabak ordezkatu eta euren ondasunak administratu behar dituzte gurasoek (KZren 154 art.). Erabateko lotura du seme-alaben eskubide eta filiazioaren efektuekin, kontuan izanik, gainera, guraso-ahalari datzekion beharrak halabeharrezkoak direla adingabearen alde ezarrita dauden heinean.

Ez hori bakarrik, familia eremuaren baitan lotura afektibo oso sendoa sortzen da, non, obligazio ekonomikoetatik aparte, guraso gisa, aitatasun instintua pizten den eta haien seme edo alaba babesteko, zaintzeko eta hauekin egoteko behar naturala sortzen den. Betebehar hauek ez dute diruzko despoltsapenik ekartzen eta ez daude manuetan araututa, maitasunetik eratorriak baitira. Horregatik, aitatasun iruzurratik kaltetuak diren auzi-jartzaile gehienek eragindako maitasun, estimu, atsegin eta antzeko sentimenduengatik,

⁴⁷ Honen adibide ditugu, beste askoren artean, Valentziako 2004ko azaroaren 2ko PAE (597/2004) eta Leongo 2007ko urtarrilaren 2ko PAE (2/2007).

⁴⁸ LACRUZ BERDEJO, José Luis (Egilekidea). *Familia Zuzenbidea. I. bolumena*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 1996. 15 eta 16 orr.

hots, eratorritako lotura sentimental honengatik, kalte morala erreklamatzeko dute.

Beraz, hori guztia esanda, zein bide erabili dezake engainatuak sortutako kalteen erantzukizuna eskatzeko? Kontratuzko edo kontratu kanpoko erantzukizun zibilak eskaintzen dituen bideen artean, zein da jarraitu behar dena?

b. Kontratuzko eta kontratuz kanpoko erantzukizuna

Gaur egun ez dago familia-eredu bakarra senarrak, emazteak eta seme-alabek osatutakoa, baizik eta hainbat familia-eredu. Horrela, ezkondu gabeko bikoteak egon daitezke, guraso bakarreko familiak (familia gurasobakar), baita sexu bereko bikoteak ere, guztiek ondorengoak izan ahal dituztenak. Era berean, posible da seme-alaben kontzepzioa sexu-harremanik gabekoa izatea; lagundutako ugalketako teknika baten emaitza izatea, alegia.

Azken batean, hamaika egoera eman daitezke eta testuinguru horretan, fideltasun-betebeharra eta aitatasuna ezkutatzea lotzen dituzten eskemak ez dira gaur eguneko egoeraren isla; zaharkituta geratzen ari dira bilakaera sozial eta juridikoaren ondorioz. RODRÍGUEZ GUITIÁN autoreak aitatasuna ezkutatzearen ondoriozko kaltea leialtasun-betebeharrarekiko autonomia izateko aukera onartzen du, eta, gainera, izatezko bikoteen kasuekin ere lotzen du⁴⁹. Pentsamendu hori gureganatuz, erantzukizun zibila aitatasuna ezkutatzearen ikuspuntutik aztertu behar dugu, eta ez fideltasun-betebeharra ez betetzearen ikuspuntutik.

Erantzukizun zibila, kalte-ordaina emateko betebehar bezala definitzen da, non kalteak kreditu-eskubide baten titular edo hartzekodun den eta erantzulea prestazio-betebehar baten zordun den⁵⁰. Kode Zibileko 1089. artikulua ezartzen duen moduan, legearekin eta kontratuekin batera, portaerak ere izan daitezke obligaziozko erlazio juridikoen iturri. Portaera da –kasu batzuetan zilegia (kuasikontratua) besteetan arau penal edo zibil baten urratzailea (ez zilegi penala edo zibila)–, obligaziozko erlazioa jaiotzeko beharrezkoa den lehen urratsa; kaltea, berriz, ezinbestekoa den bigarren ezaugarria. Portaeraren ondorioz sortutako kaltea konpontzeko beharra da, obligaziozko erlazio juridiko honen oinarria. Kalte honek, kontratu baten exekuzio-eremutik at sortzen dena, kalte-egilearen erantzukizuna sortzen du; kontratuz kanpoko erantzukizuna, edo, erantzukizun zibila ere deitua. Arau orokor gisa, erantzukizun hau jaiotzeko portaeraren egozgarritasunari erreparatzen zaio, salbuespenak badaude ere (KZ 1.902-1.910 artikulua). Ordea, kaltea

⁴⁹ RODRÍGUEZ GUITIÁN, Alma María, op. cit., 15 or.

⁵⁰ GONZÁLEZ HERNÁNDEZ Rut, op. cit. 3 or.

kontratu baten arauak urratzeagatik sortzen bada, kontratuzko erantzukizuna jaiotzen da. Kontratugileak (zordunak), prestazioarekin batera, sorturiko kalteei aurre egin beharko dio, ez betetze hori egozgarria zaion kasuetan (KZ 1.101-1.108 artikulua bitartean).

Gauzak horrela, erantzukizun zibila egoteko honako baldintza hauek eman behar dira: lehenenik, ekintza edo ez-egite bat egotea, bigarrenik, ekintzak edo ez-egiteak kaltea eragin izana, hirugarrenik, ekintzaren edo ez-egitearen eta eragindako kaltearen artean kausalitate-harremana egotea, eta laugarrenik, errua edo zabarkeria egotea; horrela, inork ez du zertan erantzungo ustekabeko kalteez edo saihestezinez.

Lehenengo baldintzari dagokionez, aztertzen dugun hipotesian, amaren engainua da aurrera eramaten den ekintza. Bigarren baldintzaren baitan, engainuagatik sortzen diren kalte moralak eta ondarezkoak edo ekonomikoak egongo lirateke (aurrerago sakonago aztertuko direnak). Hirugarren baldintzarekin jarraituz, amaren iruzurra da engainatuak izan direnen kaltea sortu duen arrazoia, hau da, kausazko lotura ematen da ekintza eta kalteen artean. Azkenik, baldintza hau guztien artean ematen den edo ez arrazoitzeko zailena da, epai gehienetan koska hemen dagoelarik. Izan ere, epai batzuetan errua elementu beharrezkotzat hartzen da, eta beste batzuetan zabarkeria egotearekin nahiko dela ondorioztatzen da erantzukizun zibila dagoela argudiatzeko.

Aitatasunaren inguruan egindako iruzurraren ondoriozko erantzukizun zibilak sortzen duen doktrina-zalantza nagusietako bat erantzukizuna kontratuzkoa edo kontratuz kanpokoa den zehaztea da. Praktikan biak erabili dira erantzukizuna eskatzeko, baina demanda gehienak KZ 1.902 artikuluan oinarritu dira, bide jurisprudenziala sortuz. Azter ditzagun biak banan-banan.

Kontratuzko erantzukizun zibilari dagokionez, KZ 1.101 artikuluan araututa dago: *“eragindako kalte-galeren ordaina eman behar dute euren betebeharrak betetzean doloz nahiz zabarkeriaz jarduten dutenek edo berandutza-egoeran jarri direnek, bai eta edozein modutan betebeharron edukia urratzen dutenek ere”*. Kasu hauetan, kaltea konpontzeko beharrezko elementutzat har ditzakegu, alde batetik kontratuaren ez betetzea, eta beste aldetik, kaltea eragiten duen dolozko, zabarkeriazko edo berankortasunezko jokabidea⁵¹.

⁵¹ Auzitegi Gorenaren 1969ko uztailaren 24ko Epaiaren arabera, kontratu-erantzukizuna dago baldintza bikoitza betetzen bada: alderdien artean kontratu bat edo kontratu-harreman bat egotea, eta kalteak kontratuaren gaia hertsiki ez betetzeagatik edo behar ez bezala betetzeagatik izatea.

Aitatasun-iruzurraren kasuan, bide hau erabiltzen duten auzi-jartzaileek senarrarekin ezkontutako edo ezkontuta egon den bitartean amak ezkontza betebeharren urrapena (leialtasun betebeharrarena, zehatzago esanda) eman dela argudiatzen dute, ezkontza kontratu bezala hartuz, KZ 67 eta 68 artikuluekin lotura eginez. Lanean defendatzen dugunez, ezkontza ez-betetze kasurako zehapen bat ezartzea, benetako betebeharr juridiko baten ez-betetzea balitz bezala, ez dator bat harreman pertsonaletan eta bikote-harremanetan nagusi izan behar duen askatasunaren ideiarekin, eta kalteen berezko funtzioa gaindituko luke.

Kontratuz kanpoko erantzukizun zibilar jarraiki, epaitegietan aitatasunaren iruzurraren inguruko kasuak agertzen hasi direnetik, bide hau izan da gehienbat sortutako kalteak ordaintzeko aukeratu dena, zeinak, esan bezala, pausoz pauso jurisprudenzia-bidea sortzen ari duen. Honi dagokionez, KZ 1.902 artikuluan arautzen da: *“norbaitek, egite edo ez-egitearen ondorioz, kalte egiten badio beste inori, tartean errua edo zabarkeria izanik, eragindako kaltea konpontzeko betebeharra du.*

1969ko uztailaren 24ko Auzitegi Gorenaren Epaiaren arabera, erantzukizuna kontratuz kanpoko da, baldin eta alderdien artean dauden beste edozein motatako betebeharratik erabat aparte, kaltea jokabidearen betebeharr orokorrak urratzeagatik edo, oro har, *alterum non laedere* (batzuetan *neminem laedere* bezala agertzen da; 'inori kalterik ez eragitea') printzipiotik eratorrita gertatzen bada. Kasu honetan, *neminem laedere*-aren araua ez betetzeagatik kalte bat dago; gure jokabide aktibo edo pasiboarekin inor ez kaltetzeko betebeharra barne hartzen duen araua urratzeagatik kaltea sortzen da. Beraz, amaren egiteagatik, eta batzuetan baita aita biologikoaren egiteagatik ere (aitatasunaren inguruko engainuagatik eta *neminem laedere* araua urratzeagatik), kalte moralak edota ekonomikoak konpontzeko eskatzen da.

KZ 1.902 art. oinarritzat hartzen duten demandatzaileek, ez dute haien demanda fideltasun betebeharraren urrapenean oinarritzen, koska aitatasunaren ezkutaketan dagoelarik. Ez hori bakarrik, 2017ko urriaren 16ko Valentziako Probintzia Auzitegiko Epaiak (PAE hemendik aurrera) bere 1. ZOn dioenez, ebazpen gehienek doloa edo erru larria eskatzen dute, eta hori ez da lotzen fideltasun-betebeharra ez betetzearekin (KZren 68 art.), baizik eta benetako aitatasuna ezkutatzegatik.⁵²

⁵² Kantabriako 71/2015 PAE, 2016ko martxoaren 3koak, bere 4. ZOan ere aipatzen du: *“...gai honi buruz emandako ebazpen gehienek, beharbada 1999-07-22ko Auzitegi Gorenaren Epaiaren*

Hori esanda, bi erantzukizun-araubideen artean kontuan hartu beharreko desberdintasun nabaria akzioen **preskripzioaren** ingurukoa da. Kontratuzko erantzukizuna eskatzeko akzioak 5 urteko preskripzio epea duen bitartean (KZko 1964.2 art.), kontratuz kanpoko erantzukizuna eskatzeko akzioen preskripzioa, aldiz, kalteak kaltea pairatzen duenetik urtebetera iraungitzen da⁵³; hots, seme-alabaren aita biologikoa ez dela ziur dagoen momentutik aurrera finkatzen da preskribatzeko epea⁵⁴, ez horren susmoak dituenetik.

Honen haritik, preskripzioaren *dies a quo* finkatzeak duen zeresana nabarmena da, izan ere, alderdi pasiboaren aldetik askotan saiateren dira uzia ezetz dadin KZ 1968.2 eta 1.969 artikuluek⁵⁵ arautzen duen akzioaren preskripzioa eman dela argudiatzen. Ez hori bakarrik, badira zenbait kasu non auzitegiek, akzioaren preskripzioa hautematean, ez duten gaiaren mamia aztertu, ezta segurtasun juridiko falta handia sortzen duten galderei buruzko erantzunik eman ere. Honen inguruan aipatzekoa da 2018ko azaroaren 13ko AGE (3700/2018), zeinak jurisprudenziaren ildo nahiko garbia markatu duen, batik bat jorratzen dugun akzioaren preskripzioaren inguruan, kalte moralen inguruan eta mantenu elikagaien inguruan.

Kasu honetan, Marino jn.k seme-alabatasun-prozesu baten ondoren, Juliana and.rekin izandako 3 semeetako baten (Raulen) aitatasunik ezaz konturatzean demanda aurkeztu zuen bere emazte izandakoaren aurka, erreklamatzeko: a) 35.304,37 euro, semeari ordaindutako mantenu-pentsioen kontzeptuan, b) aitatasuna zehazteko ordaindutako gastuen erdia, eta c) 70.000 euro, kalte moralengatik. Alderdi demandatuak, uzi horien aurka, akzioaren preskripzioaren salbuespena planteatu zuen, KZren 1968.2 artikuluekin bat etorritz. Instantziako Epaitegiak preskripzioa baietsi zuen, argudiatuz auzi-jartzaileak Raul bere seme biologikoa ez zela jakin zuenetik urtebete baino gehiago igaro zela; 2008 urtean jarri zuelako auzi-jartzaileak aitatasuna aurkaratzeko demanda,

eraginez, dolu edo erru larria eskatzen dute, eta hori ez da lotzen fideltasun-betebeharra ez betetzearekin (KZ 68 art.), baizik eta benetako aitatasuna ezkutatzegatik”.

⁵³ GONZALEZ HERNANDEZ, Rut. op. cit. 207.or

⁵⁴ Aipatutako Kantabriako 71/2015 PAE, 2. ZO: “Zenbaketaren hasierako egunak bat etorri behar du ekintza gauzatu ahal izan zen unearekin, KZ 1969 art. arabera, (...) hau da, Vanesaren aita ez zela behin betiko egiaztatzearekin (...)”

⁵⁵ KZ 1968.2 artikulua:

Urtebete igaro eta gero preskribatzen dira: 2) Erantzukizun zibila eskatzeko akzioa, erantzukizun hori sortzen bada irain edo kalumniaren ondorioz, eta 1902. artikuluan erru edo zabarkeria arautu eta horrek eratoritzen dituen betebeharren ondorioz, betiere laidotuak hori jakin duenetik. KZ 1969 artikulua:

Mota guztietako akzioen preskripzio-epea zenbatuko da, bestelakoa ezartzen duen xedapen berezirik izan ezean, akzio horiek egikaritu ahal izan diren egunetik.

2011ko azaroaren 9an adiskidetze-orria aurkeztu zuelako, eta 2013ko ekainaren 13ra arte ez zuelako demanda aurkeztu.

Auzi-jartzaileak apelazio-errekurtsua aurkeztu ondoren, Probintzia Auzitegiak errekurtsua baietsi zuen, akzioa ez baitzegoen preskribatuta. Epea laidotuak jakin zuenetik hasi behar da zenbatzen; une hori zehazten delarik filiazio-prozeduran epaia irmo bihurtzen den momentuan (2010eko azaroaren 9an), eta ondoren erregistroan inskribatzen denean. 2011ko azaroaren 9an adiskidetze-ekitaldia eskatu ondoren, preskripzioa eten zen⁵⁶ egintza hori egin arte (2012ko ekainaren 13); beraz, demanda 2013ko ekainaren 13an aurkeztu zenez, gauzatutako akzioa ez zegoen preskribatuta.

Amak kasazio-errekurtsua jarri zuenean, Auzitegi Gorenak erantzun zuen akzioaren preskripzio-epaia zenbatzeko *dies a quo* 2010eko azaroaren 9ko epaiaren bidez aitatasun-presuntzioa amaitzen den eta inskripzioa egiten den unea dela, bestela gauzatutako akzioa ez bailitzateke eragingarria izango; epe hori adiskidetzeak eten zuelarik, eta, beraz, demanda epearen barruan formulatu zela. Horrela, Auzitegi Gorenak behin eta berriz finkatutako bidea jarraitzen du: garrantzitsua ez da interesdunak analitika edo azterketa genetiko baten emaitzak ezagutzea, baizik eta seme-alabatasun-epai bidez aitatasun-presuntzioa amaitzen den unea. Hots, epea zenbatuko dela kaltetuak jakin duenetik, eta une hori zehaztuko dela epaia seme-alabatasun-prozeduran irmo bihurtzen denean.

i. Familia balioak eta ezkontza betebeharrak urratzeak dakarren erantzukizuna

Hasteko, familiaren baitan existitzen diren moral eta etika printzipioen inguruko analisi labur bat egiteko beharrea aurkitzen gara. Horren haritik, **familia eremuaren** barne mundu osoan praktikatzen diren eta urte askotan zehar indarrean iraun duten balioak daude, familiaren parte diren kideek errespetatu ohi dituztenak, alegia. Gure erkidegoan bizikidetzaren egokia izateko beharrezkoak diren printzipio etiko edo moral horien artean ezberdindu daitezke, hala nola, errespetua, justizia, erantzukizuna, askatasuna, berdintasuna, enpatia, balioa, zintzotasuna eta osotasuna, konpromisoa eta tolerantzia, gure familietan bizikidetzaren osasuntsua eta harmoniatsua ahalbidetzen dutenak⁵⁷. Konfiantzak ere zeresan handia dauka eremu honen barne, izan ere, familiaren

⁵⁶ Ildo horretatik, KZ.ren 1973 art. aipatu behar da. Artikulu horrek ezartzen duenez: “Akzioen preskripzioa geldiarazi egiten da, akzio horiek auzitegiaren egitaritza-eraren ondorioz (...)”.

⁵⁷ FIERRO LUNA, Fernando. *Valores y relaciones familiares*. Consejo Nacional de Fomento Educativo. Mexico, 2008. 8. or.

intimitatean, bizitzako gainerako esparruetan baino kontu gutxiagoz jokatu daiteke kideen artean sortzen den konfiantza dela eta.

Horrela, amak familiaren oinarri diren balio nagusiak apurtuz engainua burutu du (batez ere elkarren artean zor dieten konfiantzaz eta errespetuaz), eta ez hori bakarrik, **ezkontza-betebeharrak** ere urratuz (beste batzuen artean, fideltasuna urratuz). Azken hauei dagokienez, argitu beharra dago nahiz eta izenak berak dioenez, ezkontza-betebeharrak ezkontza loturak sortzen dituen betebeharrak izan, analogikoki egitatezko bikoteen erlazioan ere aplikagarriak direla; betebeharrak etiko edo moralak izanik, formalizatutako edozein bikote-erlaziotan ezargarriak baitira. Izan ere, aitatasun biologikoaren esleipen faltua ezkondata ez dagoen bikote baten baitan ere gerta daiteke, zeinaren baitan ez diren ezkontza-betebeharrak arautzen. Horri dagokionez, kasu horietan ere konfiantza eta hartutako konpromisoa traizionatzen dira, eta, azken batean, fideltasun-betebeharra urratzen da, Kodean aitortutakoa izan ez arren.

Gainera, ezkontza gero eta gutxiago bereizten da ezkontzakoak ez diren elkartzeetatik. Ildo horretan, lotura egonkorak edo izatezko bikoteak “kuasiezkontza” gisa gauzatu egiten dira; eta ondorio horiek hedatu ahal izateko, besteak beste, erregistro publikoetan inskribatzea edo bizikidetzako harremana edo sozietatea notario-agirian formalizatzea bezalako betekizunak eskatzen zaizkie. Ez hori bakarrik, bikote-mota horren estatutu juridikoa erregulatzen duten arau gehienek “ezkontzaren antzeko” harreman afektibo bat eskatzen diete⁵⁸.

Horrela, ezkontza loturaren baitan, ezkontzideek elkarri zor dizkieten balioak edo betebeharrak daudenez, senar-emazteei ezkondu bezain pronto sortzen zaizkien “betebeharrak” hauei erreparatu behar diegu, jakiteko: batetik; zertan dautzan betebeharrak horiek, bigarrenik; zein den betebeharraren izaera, eta hirugarrenik; betebeharrak urratzeak zer ondorio ekarriko luketen. Hau aztertze beharrean aurkitzen gara, askotan aitatasunaren inguruan engainatuak izan diren gizonen tarteratzen dituzten demandetan ezkontza betebeharrak urratzeagatik kalte ordaina eskatzen dutelako.

Lehenik eta behin, ezkontza-lotura ematen den momentutik aurrera, KZ 67 eta 68 artikuluek jasotzen dutenez gero, ezkontzideek begirunea eta laguntza eman behar dizkiote elkarri, eta familiaren intereserako jardun behar dute. Era berean, ezkontzideek

⁵⁸ GARCIA AMADO, Juan Antonio. *¿Hay deberes matrimoniales?* Almacen de Derecho. 2015ko uztailaren 11.

betebeharra dute, elkarrekin bizi, bestearenganako fideltasuna izan eta elkar sorosteko. Gainera, elkarrekin banandu beharko dituzte etxeko ardurak, bai eta aurreko, ondorengo eta euren ardurapeko beste pertsonen gaineko zaintza eta arreta ere.

Gauzak horrela, betebehar horiek ez betetzeak zigorra, konpentsazioa edo kalte-ordainen bat ekarri beharko luketen ulertu ahal izateko, benetan eginbeharrak diren edo ez baloratu beharko genuke. Hau da, betebehar horien eduki zehatza zein den ikusi ondoren, horien **izaera** aztertu behar da, horiek ez betetzeak ondorio desberdinak izan baititzake, betebehar juridiko edo, besterik gabe, betebehar moral gisa hartzen diren kontuan hartuta. Lanaren ildotik asko ez urruntzeko, fideltasunaren betebeharrean arreta jarriko dugu.

Zuzenean hiztegian **fideltasunaren** definizioa bilatuko bagenu, aurkituko genuke fideltasuna “leialtasuna, norbaitek beste norbaiti zor dion fedea zaintzea” bezala definitzen duela⁵⁹. Kontzeptua denboran zehar aldatuz joan da, gizarteak hala egin duen heinean, horregatik desleialtasunari interpretazio ugari eman zaizkio. Hori dela eta, elkarri leialtasuna gordetzeko betebeharra erlatibizatu egin behar da bere testuinguru soziokultural zehatzean.⁶⁰ Oro har, betebehar hori, hasiera batean, beste ezkontidea ez den beste pertsona batekin sexu-harremanak edo harreman sentimentalak ez izateari lotuta egon da. Gaur egungo gizartean, aldiz, fideltasun-betebeharrak ikuspegi zabalago baterantz jo du, eremu espirituala edo afektiboa nahiz fisikoa edo sexuala hartzen dituen.⁶¹ Fideltasuna, beraz, elkarrekiko konfiantzaren, leialtasunaren eta beste bikotekidearen pertsonaren duintasunarekiko errespetuaren ingurukoa da, bai eta elkarrekiko errespetuaren betebeharraren ingurukoa ere.

Gaur egungo doktrinak, salbuespenak salbuespen, ulertzen du ezkontza-eginbeharrak ez direla betebehar juridiko *stricto sensu*, baizik eta betebehar etiko eta moral soilak direla. Horrek dakarrena da betebehar hauek betetzea bikotekideen kontzientziaren mende dagoela, haztaezinak direla, ezin baita derrigorrean betetzea eskatu⁶². Jurisprudenzian, hala ere, ezkontza-betebeharren edukiari eta ondorioei buruzko banaketa dago oraindik.

⁵⁹ *Real Academia Española* hiztegiiko definizioa.

⁶⁰ PÉREZ GALLEGÓ, Roberto. *Nuevos daños en el ámbito del derecho de familia: los daños morales y patrimoniales por ocultación de la paternidad biológica*. Revista de Derecho Civil. II. Bolumena, 3. Znbk. (uztaila-iraila), 2015. 143-144 orr.

⁶¹ MURILLAS ESCUDERO, Juan Manuel. *La responsabilidad civil extracontractual por daños morales en la relación conyugal*. REDUR. 2015eko abenduaren 13an. ISSN 1695-078X. 112-113 orr.

⁶² PÉREZ GALLEGÓ, Roberto. op. cit. 143 or.

Fideltasun-betebeharra **ez betetzearen ondorio juridikoei** dagokienez, ezkontza-desleialtasuna 1978 urtera arte delitu gisa tipifikatuta zegoen eta Zigor Kodeak arautzen zuen. Maiatzaren 26ko 22/1978 Legearekin, adulterioa eta ohiadetza despenalizatu ziren (adulterioa emakumeak egindako desleialtasunerako tipifikatutako delitua zen, eta ohiadetza, senarraren desleialtasunerako aurreikusitako delitua), eta hortaz, ondorio penalak izatetik, ondorio zibilak izatera aldatu zen (aurrerago aipatutakoak).⁶³

Geroago, baina 15/2005 Legearekin Kode Zibila erreformatu aurretik, hots, banantzeari eta dibortzioari buruzko erreforma aurretik, fideltasun-betebeharra ez betetzearen ondorio garrantzitsuena banantze- edo dibortzio-kausa zela zen. 15/2005 Legeak edukirik gabe utzi zituen KZ 82 eta 87 artikulua, banantzea edo dibortzioa eragin zezaketen kausen zerrenda arautzen zuten manuak, alegia. Beraz, gaur egun indarrean dagoen erregulazioarekin ez da beharrezkoa banantzea edo dibortzioa eragin duen inolako gertaera edo zirkunstantziarik alegatzea, eta nahikoa da gutxienez ezkontideetako baten borondate hutsa ezkontza-batasuna hausteko⁶⁴.

Egun, gure ordenamendu juridikoan, desleialtasunak hurrengo ondorio juridikoak ekar ditzake: alde batetik, jaraungabetzeko kausa posiblea izan daiteke (KZ 855.1 art.⁶⁵), jarraitzeko, ezkontide arau-hauslearen mantenu-eskubidea galtzeko aukera ere bada (KZ 152.4 art.⁶⁶), eta, bukatzeko, ezkontza banantze edo dibortzio bidez amaitzen bada, ezkontzagatiko dohaintzak ezeztatzea ere ekar dezake (KZ 1343 art. *in fine*⁶⁷). Baina, oro har, espainiar ordenamendu juridikoak ez du inolako zehapen espezifikorik jasotzen ezkontzako fideltasun-betebeharra ez betetzeari dagokionez.⁶⁸

⁶³ MONTERROSO CASADO, Esther. *Responsabilidad civil y consecuencias derivadas del incumplimiento del deber de fidelidad*. Revista Crítica de Derecho Inmobiliario, 773 zenbk. 2019. 1559-1562 orr.

⁶⁴ POZANCO NIETO Miriam eta ROVIRA DEL RIO Eduardo Jesús. *Consecuencias legales de la infidelidad en el derecho español: una aproximación jurisprudencial*. Revista Vía Iuris, 16. Zenbk., urtarrila-ekaina 2014. 189-191 orr.

⁶⁵ Kode Zibilaren 855.1 artikulua: *Ezkontidea jaraungabetzeko arrazoi zuzenak izango dira, 756. artikuluan 2, 3, 5 eta 6. zenbakietan adierazitakoak ez ezik, hurrengoak ere bai:*

1. Ezkontzako eginbeharren aurka ez-betetze larri edo errepikatua burutzea.

⁶⁶ Kode Zibilaren 152.4 artikulua: *Modu berean, mantenu emateko betebeharra amaitzen da: 4. Nahitaezko jaraunse izan zein izan ez, mantenu-hartzaileak hutsegitea izan duenean, hutsegite horrek jaraungabetzea baldin badakar.*

⁶⁷ Kode Zibilaren 1343 artikulua (*in fine*): *Ezkonberriek egindako dohaintzetan, zamen ez-betetzetat har daitezke, zama zehatzen ez-betetzeaz gain, ezkontza deuseztatzea ere bai, baldin eta dohaintza-hartzaileak gaitzuzte jarduten badu. Eskergabekeriatzat jo daitezke, legezko kasuez gain, dohaintza-hartzaileak 855. artikuluko jaraungabetze-arrazoiak betetzea, edo epaiaren arabera banantzearen edo dibortzioaren arrazoiak dohaintzahartzaileari egozte.*

⁶⁸ PÉREZ GALLEGU, Roberto. op. cit. 144 orr.

Ezkontza betebeharrak ez betetzeari erantzukizun zibila aplikatzeari dagokionez, ikus dezakegu Espainiako doktrina, oro har, aukera horren aldekoa izan dela urteetan zehar. Ildo horretan, aipatzekoak dira⁶⁹ Lacruz Berdejo, Sancho Rebullida, Lete Del Río, Gete-Alonso y Calera, García Cantero, Tagel Sánchez, Alonso Pérez, Pérez Mayor eta Igartua Arregui, besteak beste. Hala eta guztiz ere, denborak aurrera egin ahala, eta pentsamenduak eraberritu diren bezala, gero eta egile gehiago iritzi horren aurka aurkeztu dira; doktrinaren korrante hori Ramos Chaparro, Serrano Gómez, Ferrer Riba⁷⁰ Salvador Coderch, Ruiz García⁷¹, eta Rodríguez Guitán autoreek osatzen dutelarik.

Lehenengo korrante horren iritzi aitzindaria LACRUZ BERDEJO autorearena izan zen, zeinak KZ 68. artikulua aztertzerakoan (2005eko erreforma aurretiko artikulua), adulterioa tipifikatzen zuen arlo horretako arau-hausterik larrirentzat, kalte-galerengatik kalte-ordaina ematea zekarrelarik, ezkontide errugabearen duintasunari eta sentimenduei eragiteagatik, Espainiako Zigor Kodearen 104. artikulua ohia oinarri hartuta, eta kalte-ordain akzioa ematen zuena, biktimak ez ezik, bere familiarentzat ere bai.

Gaur eguneko egoerara hobeto egokitzen diren pentsamenduen artean, ordea, LÓPEZ DE LA CRUZ autoreak, argudiatzen du “fideltasuna familiaren eta partikularren esparru intimo eta pribatuari dagokiola; horregatik, nahiz eta desleialtasuna moralki gaitzesgarria izan, Zuzenbideak ezin duela zehatu horrek ekarriko lukeen zigorra, ezta behartu ere horrek eragindako kaltea ordaintzera”⁷².

Bide horretarik jarraituz, gerta liteke betebehar hauek ez betetzearen ondorioz gizabanakook ditugun oinarrizko eskubideren bat ere urratu ahal izatea. Honekin esan

⁶⁹ Hala aipatzen dituzte BARCIA LEHMANN, Rodrigo eta RIVERA RESTREPO José M., *¿En qué casos el incumplimiento de deberes del matrimonio genera responsabilidad civil?* Ius et Praxis aldizkaria, 2. Znbk. 2014. 29-30 orrialdeetan.

⁷⁰ FERRER I RIBA, Josep. *Relaciones familiares y límites del derecho de daños*. InDret 4/2001. Bartzelona, 2001ko urria. 14. orrialdean adierazten du: “*Berdin da betebehar baliokideak betetzea ere; izan ere, ezkontide baten eta bestearen erabaki moral askearen bidez bakarrik bete daitezkeen eginbeharrak izanik, kontraesankorra dirudi horiek zeharka derringortzeko bitartekoak ezar daitezkeenik. Horri kalteak kalkulatzeko zailtasuna gehi dakioke...*”

⁷¹ SALVADOR CODERCH, Pablo eta RUIZ GARCÍA, Juan A. “*Comentario sobre el art. 1 del Código de Familia*”, EGEA FERNÁNDEZ, Joan eta FERRER RIBA, Josep autoreen *Comentarios sobre el Código de Familia, la Ley de relaciones estables y la Ley de situaciones de convivencia de ayuda mutua* liburuan ikusia. Tecnos. Madril, 2000. 43 eta 66 orrialdeetan adierazten dute: “*Ezkontza eraentza, borondatez onartu eta mantendutako bizitza-komunitate gisa, ezkontza-eginbeharren zigor ezintasuna dakar, horietan oinarritzen baita. Ezkontza nahitaez betearaztera bideratutako uzi oro kontraesanean dago ezkontzaren izaerarekin*”.

⁷² LOPEZ DE LA CRUZ, Laura. *Contenido actual de los deberes conyugales*, InDret, Revista para el Análisis del Derecho, 2010. 571 eta hurrengo orrialdeak.

nahi duguna da, ez-betetzearen ondorioz bikotearen osotasun fisiko eta psikikorako eskubidea, haren osasuna, haren ohorea, intimitatea eta abar urratu ahal direla. Zentsu honetan, RODRIGUEZ GUITIÁN autorearen hitzetan, erantzukizun zibileko arauak aplikatu ahal izateko, beharrezkoa litzateke ezkontzako ez-betetze berez larria eta errepikatu baten aurrean egotea, eta, gainera, beste bikotearen dolozko portaera baten aurrean egotea, zeinak erlazio familiarra apurtzen duen.

Ikusi daitekeenez, hainbat dira gai honen inguruko iritziak, autore bakoitzak berea duelarik, eta zalantzarik gabe, “zenbat buru, hainbat aburu” atsotitz ezaguna kasu honen isla perfektua litzateke. Hala ere, azken urteotan, gero eta gehiago dira azken jarreraren alde agertzen direnak, auzitegietan ere jarrera hau nabarmentzen delarik⁷³.

Gauzak horrela, ezkontideetako baten desleialtasuna, norberekoikeria edo edozein ezaugarri besteak negatibotzat jotzen duena, edo gaur egun indargabeturik dagoen Zuzenbiderako eta garai bateko Kode Zibilerako ezkontzaren funtsaren edo ezkontzaren betebeharren aurkakoak direnak, juridikoki garrantzirik gabekoak dira GARCIA AMADOK dioenez. Eta hala direla dio, Zuzenbidearentzat jada ez dagoelako funtsezko ezkontza-eredua dei genezakeena, eredu formal edo instituzional hutsa baizik⁷⁴.

c. Espainiar jurisprudentziaren azterketa

Aurreko ataletan aipatutako familia balioak eta fideltasun betebeharra ez betetzeagatik, eta batik bat, amaren engainuagatik eragindako kaltearen ordaina jasotzeko aurrera eramán diren demandei erantzun eman dieten azken urteotako epaiek hartu duten norabidea zein izan den aztertuko da honako atal honetan, kontuan hartuz, alde batetik, Auzitegi Gorenak emandako epaitza, eta bestetik, Probintzia Auzitegien epaien ebazpena.

Gure ordenamendu juridikoan, gero eta gehiago dira ezkontide- edo bikote-ohiaren aitasunaren inguruko engainuagatiko jurisprudentzia-erabakiak. Hasiara batean epaileak horrelako kalteak ordaintzeko uzkur agertu baziren ere, eta zentzu horretan Auzitegi Gorenak 1999ko uztailaren 22an eta 30ean emandako bi epaiek hala islatzen badute ere, azken hamarkadan Probintzia Auzitegien esparruan jurisprudentzia-garapen

⁷³ Kadizeko 125/2008, 2008ko apirilaren 3koaren 2.1 ZO: “Aipatutako azken epaiari jarraituz, horren edukia gure egiten dugularik gero egingo diren ñabardurekin eta zehaztapenekin, honako hau adierazi behar da: ‘Ezkontzako desleialtasuna kalte-ordaina jasotzeko modukoa ez bada ere, ezkontideari ezkutatutako ezkontzaz kanpoko seme edo alaba baten ugalketa bai da’”.

⁷⁴ GARCIA AMADO, Juan Antonio. op. cit

handia eman da honen inguruan finkatutako doktrinari aurre eginez.⁷⁵ Hala ere, 2018ko azaroaren 13ko AGErekin egon zitezkeen zalantza eta kontraesan gehienak argitu ziren.

i. Auzitegi Gorenaren bi epai aitzindari

Espainiako ordenamenduko doktrinak eta jurisprudentziak hartutako norabideari erreparatzeko, aipatutako Auzitegi Gorenaren 1999ko uztailaren 22ko eta 30eko bi epaiekin hasiera emango diogu azterketari. Hauei dagokienez, bi epaietan senar bati eragindako kalte moralaren ordainketari buruzko oso antzekoak diren bi kasu planteatu ziren, non emaztea desleiala izan ondoren, senar horiek momentura arte bereak zirela uzte zituzten seme-alaben aita biologikoak ez zirela jakin zuten. Azpimarragarriak suertatu zaizkigu, urte berean eta tartean egun gutxi batzuk egonik, eta Magistratu bera izan arren (Alfonso Barcalá Trillo-Figueroa jauna), arrazoibide desberdinak egiten direlako senarrak eskatutako kalte-ordainaren bideragarritasunari buruz.

Horrela, bi epaien arteko ezberdintasun nagusia erantzukizuna eskatzeko bidea izan zen; lehenengoak kontratuz kanpoko erantzukizuna zuen oinarri (KZko 1.902 artikulua bidetik erreklamatu, bai kalte moralagatik, bai kalte ekonomikoagatik), eta, bestek, aldiz, kontratuzkoa (kasazio-errekurtsioan kontratu batekin parekatu zen ezkontza, eta kontratu horren betebeharrak, bete ezean, kalte-ordaina ekarri behar zutela).

Lehenengoa, Auzitegi Gorenaren (Arlo Zibileko 1. Salaren) uztailaren 22ko 687/1999 epaia da⁷⁶. Hasteko eta kokatu gaitzen, 1. ZOan azaltzen denez, epai honen parte diren demandatzailea (Alfonso jauna) eta demandatua (Carolina andrea) 1956an ezkondu ziren eta 1969an bikoteak banantzea erabaki zuen, urte horietan zehar zazpi seme-alaba izan zituztelarik. 1974an, Eliza Auzitegiak emazteari banantzea eman zion, eta urte bat geroago ezkontzaren deuseztasuna; ondorio zibilak ere izan zituelarik Madrilgo Lehen Auzialdiko Epaitegiaren epaiagatik. 1990ean, froga biologiko bidez egiaztatu zen ezkontzan izandako seme bat (Carlos José jn.) ez zela Alfonso jn.ren seme biologikoa, baizik eta aita biologikoa Armando jn. zela. Semeak, egoeraren jakitun, bere aita biologikoa ez zenaren aitatasuna aurkaratzeko demanda aurkeztu zuen. Hasieran, amaren senar ohia horren aurka agertu zen, baina, gero, egindako proba biologikoen emaitza jakin

⁷⁵ LÓPEZ DE LA CRUZ, Laura. *El resarcimiento del daño moral ocasionado por el incumplimiento de los deberes conyugales*. InDret, Revista para el Análisis del Derecho 4/2010. 24 or.

⁷⁶ Auzitegi Gorenaren 1999ko uztailaren 22ko 687/1999 epaia. Id Cendoj 28079110011999101664.

ondoren, onartu egin zuen. 1992an demanda hori baietsi zen eta epai bidez ondoriorik gabe aitortu zen senarra izan zenaren semearen aitatasuna.

Auzitegi Gorenaren iritzipean jarritako egitateak Alfonso jaunak Carolina andreari, aurkeztutako demandatik abiatzen dira: hogeita lau milioi pezetagatik, auzi-jartzaileak 15 urtez bere semetzat izan zuenari elikagai gisa ordaindutako gastuengatik eta beste hogeita bost milioi pezetako kalte-ordaina, aitatasuna ezkutatzek eragindako kalte moralagatik. Hau KZ 1.902 artikulua abiapuntutzat hartuz erreklamatu zen. Hala, senar ohiaren uziek ez zuten aurrera egin lehen bi instantzietan, ezta Auzitegi Gorenaren epai honetan ere.

Ikus ditzagun orain epai horren argudioak: Auzitegiak, egitateak aztertu ondoren, kasazio-errekurtsoa ezetsi zuen, aitatasuna ezkutatzegatik kalte-ordaina jasotzeko uzien aurka egin zuelarik, ondorioztatu baitzuen emakumearen jardunean ez zela dolurik eman, honek ez baitzekien semearen aitatasuna senar ohiari ez zegokiola. Izan ere, epaiak dioenez, demandatuak erabateko ahalbideak eta susmoak zituen, ez erabateko ziurtasuna. Beraz, uziek ez zuten aurrera egin, ez kalteak gertatu ez zirelako, baizik eta Auzitegiak ez zuelako amaren jokabidean dolurik hauteman.

Ildo horretatik, ondorioztatu zen doloa behar-beharrezkoa zela aitatasunaren inguruko iruzurraren kalteen erreklamazioetan KZ 1.902 artikulua aplikatzeko, eta beraz, gaiaren koska, doloa noiz emango litzatekeen da. Amak harremanak izan zituen bi gizonekin, horregatik benetako aitatasunari buruz zalantzak izango zituela ondorioztatu dezakegu. Pentsa liteke, beraz, GARCÍA AMADO autoreak⁷⁷ ondorioztatzen duen bezala, dolua egongo dela amak ziur dakienean bere senarra ez dela bere semearen aita, eta hori ezkututzen badu, hau da, aitatasun-frogak egiten baditu eta emaitzek berak susmatzen zuena berresten badute eta ez badu hori jakinarazten. Beste alde batetik, ez da dolurik emango, desleialtasun baten ondorioz seme-alabatasunaren zalantza ezkutatzean, ezta zalantzatik irteteko proba egiten ez denean ere.

Hortaz, Auzitegiak emandako epai honi dagokionez, ulertzen da emakumeak, bere senarra aita biologikoa ez dela susmatzen duelarik, ez badu eskura dagoen froga zientifikoaren bidez senarra aita den ala ez jakiten, libre geratzen dela dolua egozteko aukera orotatik. Beste era batera esanda, aitatasunaren inguruan jakin nahi ez izateak edo zalantza izaten jarraitzeak dolua baztertuko luke. Dolua emateko, semea agian harena ez

⁷⁷ GARCÍA AMADO, Juan Antonio. *Sobre aquellas dos extrañas sentencias del Tribunal Supremo de 1999*. Almacen de Derecho, 2016ko urriaren 30a.

zela jakitearekin ez litzateke nahikoa izango, harena ez zela ziur jakin eta ezkututzen jarraitu beharko luke.⁷⁸

Jarraitzeko, bigarren epaia Auzitegi Gorenaren 1999ko uztailaren 30eko 701/1999 epaia da⁷⁹. Sarrera gisa esango dugu kasu zehatz honetan, 1. ZOan adierazi bezala, Marcelino jn. eta Rosario and. 1974an ezkondu zirela eta bi seme-alaba izan zituztela (bata 1977 urtean eta bestea 1981 urtean). 1983an banandu egin ziren eta akordio batera heldu ziren, non semea eta alaba (Luis Angel eta Eva) amaren zaintza eta babespean geratu ziren, eta aitak mantenuagatik pentsioa ordainduko zion amari. Urtebete geroago, 1984an, emakumeak senarraren aitatasuna inpugnatu zuen, hirugarren baten (Juan Miguel jn.) aitatasuna baliaraztea eskatu zuelarik. Hala nola, 1986an epaia eman zen, eta praktikaturako frogen arabera, hirugarren hori zen ezkontzan jaiotako bi seme-alaben aita biologikoa; horregatik seme-alabak bere gisa inskribatzera eta zegozkion betebeharez arduratzera behartu zitzaion.

Egoera honen aurrean Marcelino jn.k demanda tarteratu zuen, non bere emaztea zenari hurrengo kantitateak ordaintzeko eskatzen zen: bi milioi ehun eta berrogeita hamar mila pezeta ezkontzaz kanpoko bi seme-alaba hauek mantentzeagatik, berrogeita hamar mila pezeta pentsio gisa ordaindutakoagatik eta hamar milioi pezeta kalte moralagatik. Demandatzaileak hau guzti hau KZ 1.101 artikuluan oinarritu zuen, hau da, emakumeari egozten zitzaiona “kontratua” (ezkontzari eta KZ 67 eta 68 artikuluei erreferentzia eginez) doloz eta fede txarrez ez betetzea zen. Lehen auzialdian, emakumea hamar milioi pezetako kalte-ordaina ematera kondenatu zen, baina 1994an Madrilgo PAEk hori ezeztatu zuen, eta epai honen kontra Marcelino jn.k kasazio-errekurtsoa aurkeztu zuen.

Errekurtsoaren oinarria honako hau zen: fideltasun-betebeharra kontratu-betebeharra zela, ezkontza-kontratuan jatorria zuelarik, eta emazteak nahitaez bete behar zuela. Kalte moralei zegokienez, senarrak alegatu zuen erreklamatzeko zuela ez bakarrik engainu iraunkorrean bizi izan zela, baizik eta engainu beraren azken emaitza seme-alabak galtzea izan zela, halakotzat hartzen zituenak ez zirelako egiatan bereak, baita sufrimendu psikiko edo espiritualak ere etorkizuneko proiektu guztiak behera etortzen ikustekoan. Era berean,

⁷⁸ GARCÍA AMADO, Juan Antonio. op. cit. eta ROCA TRÍAS, Encarna. *La responsabilidad civil en el Derecho de familia. Venturas y desventuras de cónyuges, padres e hijos en el mundo de la responsabilidad civil*, Perfiles de la responsabilidad en el nuevo milenio, Dykinson. Madril, 2000. 561-563 orr.

⁷⁹ Auzitegi Gorenaren 1999ko uztailaren 30eko 701/1999 epaia. Id Cendoj 28079110011999101667.

doloa zegoela argudiatzeko baliozko gertaera azpimarragarria eta kasurako erabakigarria zen egitate bat aurkeztu zuen. Horrela, ezkontza-gatazka pil-pilean zegoenean, emakumeak “El País” egunkarian argitaratu zuen ezkontzako seme-alaba horiek ez zirela Marcelino jn.ren seme-alaba biologikoak.

Uztailaren 30eko AGE.ren 2. ZOn ikus daitekenez, uztailaren 22ko AGE.arekin alderatuz, egun batzuk geroagoko epai honetan berdin izan zitzaion Auzitegiari kasu honetan doloa egon edo ez egon, zeren oraingoan ezezkoaren arrazoia hurrengo hau izan baitzen: ezkontideetako batean bestearen desleialtasunak eragindako kalte moralari ezin zaiola inolako ordain ekonomikorik eman. Hari beretik, ondorioztatu zuen KZren 67 eta 68 artikuluetan aipatutako ezkontza-eginbeharrak urratzeak gaitzespen etiko-sozial ukaezina merezi zutela, are gehiago urratutako betebeharra leialtasuna bazen. Baina, ordenamenduak fideltasun-betebeharra urratzeagatik aurreikusten zuen ondorio bakarra ezkontza-banantzearen kausa baliozkoa izatea zen, garai horretan indarrean zegoen Kode Zibilaren 82 art. arabera (gaur egun indarririk gabekoa).

ii. Probintzia Auzitegien epaiak

Aipatutako Auzitegi Gorenaren bi epaietatik ondorioztatu zen, alde batetik, aitatasuna ezkutatzegatik eragindako kalte moralaren erreklamazio baten aurrean, kalte-ordaina ezin zela kontratu-izaerakoa izan (1999ko uztailaren 30eko AGE.n oinarrituz). Bestetik, kalte-ordaina ez zela bidezkoa izango, baldin eta, erantzukizuna eskatzeko bidea kontratuz kanpokoa izanik, emaztearen doloa egiaztatzen ez bazen (1998ko uztailaren 22ko AGE oinarri hartuz).

Hari beretik, lehenago adierazi bezala, PAEek jorratu gabe zeuden alderdi batzuetan gehiago sakontzen joan ziren; izan ere, Auzitegi Gorenaren aurreko epaiak nahiko generikoak eta iheskorrak baitziren. Beste kasu batzuetan, Auzitegi Gorenaren epaiak lehenago ebatzitako gai horiek zalantzan jarri zituzten; adibidez, kaltea eragin duenak bere jarduketan doloz jokatu izana beharrezkoa den ala ez demandatzaileak kalte-ordaina kobratu ahal izateko, edo nahikoa bada zabarkeriaz jokatu izana.

Honen ildotik, **doloa** zegoela esaten zen amak bere ondoan zuen gizona bere seme-alabaren aita ez zela jakinik, iruzurra burutzen zuenean (jakintza eta nahia ematen denean, alegia). Argi geratu behar da, eta hala adierazi zuen Valentziako 2004ko azaroaren 2ko PAEk (597/2004), doloa demandatuak aitatasunari dagokionez egindako jardueran balioesten dela, eta ez desleialtasunean. Era berean, Kantabriako, 2016ko martxoaren 3ko

PAEk (71/2015), bere 4. ZOn adierazi zuen doloa ere eman daitekeela doluzko erretizentziagatik, hau da, isilik geratzen den edo beste alderdia fede onak eskatzen duen informatzeko betebeharraren inguruan ohartarazten ez duenaren doluzko isiltasunagatik.⁸⁰

Gauzak horrela, ezkontideak benetako aitatasuna ezkutatzean dolozko jokabidea izatea eskatzen duten korronteen artean, aztertutako AGren 1999ko epaien ondorengoko Probintzia Auzitegien lehen epaiak daude, finkatu berri zen doktrina errespetatu nahian demandatuaren jokabidean dolorik susmatzen ez dutenak. Horien artean ditugu: Gironako 2002ko ekainaren 13ko PAE, Bartzelonako 2005eko uztailearen 22ko PAE eta 2008ko urriaren 31ko PAE, Pontevedrako 2006ko abenduaren 13ko PAE, Burgoseko 2007ko otsailaren 16ko PAE⁸¹ eta Murtziako 2009ko azaroaren 18ko PAE (262/2009)⁸².

Beste alde batetik, beste Probintzia Auzitegi batzuk, AGEN kontrako interpretazio baten bidez, doloa egiaztatuta geratzen zela ondorioztatzen hasi ziren, eta hortaz, kalte-ordaina zilegia zela. Horrela, epaiak ematen hasi ziren dolozko ezkutaketagatik kalte moralaren ordaina ematera kondenatzen. Honen adibide dauzkagu, alde batetik Valentziako 2004ko azaroaren 2ko PAE (597/2004), zeinetan emaztearen eta harekin bizi zen pertsonaren aldetik seme-alaben sorkuntzan axolagabekeria, eta aitatasuna ezkutatzean doloa zegoela erabaki zen. Beste aldetik, aurreko epaiaren ildo jarraitzen duten Leongo 2007ko urtarrilaren 2ko PAE (2/2007)⁸³ eta 2009ko urtarrilaren 30eko PAE (39/2009)⁸⁴.

Interesgarria da nola beste epai batzuek ez duten nahitaez dolurik eskatzen aitatasuna ezkutatzearen ondoriozko kalteak ordaintzeko; uste baitute KZren 1.902 artikulua zabarkeriaren kontzeptua barne hartzen duela. Oro har, **zabarkeriari** dagokionez, orokorrean emango da eginbideak behar den arretaz, lastertasunaz edo txukuntasunaz egiten ez direnean; guraso biologikoen jaiotza saihesteko eskura zituzten baliabide guztiak hartu ez dituztenean⁸⁵, adibidez. Aipatutako Kantabriako PAE (71/2015) horrek ere⁸⁶ zabarkeriaren inguruan, Bartzelonako 2007ko urtarrilaren 16ko PAE.ri erreferentzia

⁸⁰Kantabriako 71/2015 PAE, 2016ko martxoaren 3koa. Id Cendoj 39075370022016100003

⁸¹ Epai hauen aipamena egiten da: FARNOS AMOROS, Esther. *Remedios jurídicos ante la falsa atribución de la paternidad*. ISSN: 1133-8768. 25. zenbk., urtarrila-abendua 2011. 19-20 orr.

⁸² ECLI: ES:APMU:2009:2353. Eskuragarri hemen: <https://app.vlex.com/#vid/210501215>

⁸³ ECLI:ES:APLE:2007:2. Eskuragarri hemen:

<https://www.poderjudicial.es/search/openDocument/ed2aa580a7aca6ab/20070222>

⁸⁴ ECLI: ES:APLE:2009:39. Eskuragarri hemen: <https://app.vlex.com/#vid/63217988>

⁸⁵ Zabarkeria emango da ernaltzea saihesteko neurriak hartzen ez direnean, ez neurri horiek hartu ez zirela jakinda, beharrezko “ikerketak” ez egiteagatik.

⁸⁶ Baita Valentziako 343/2017 PAEk ere.

eginez, emazteak zabarkeriaz jokatu zuela ulertu zuen: “*adingabearen aita beste bat izan zitekeela susmatu ahal izan zuelako eta susmatu behar zuelako, bi pertsonekin sexu-harremanak izan zituelako haurdun geratu zenean, eta erabaki hori hartzeko neurriak hartu behar zituen*”.

Zentsu honetan aipagarri ditugu Bartzelonako 2007ko urtarrilaren 16ko PAE (27/2007) eta Kadizeko 2008ko apirilaren 3ko PAE (125/2008) zeintzuetan ez den dolurik aitortzen, baina bai eragindako kalteengatik erantzukizuna eragin dezakeen jokabide arduragabea (zabarkeria). Horrenbestez, “kontratuz kanpoko erantzukizuna dakarren zabarkeria” sortzen da. Ondorioz, dagoeneko ez da dolo esplizitua eskatzen kalte-ordaina emateko; aitzitik, zabaldu egiten da KZren 1.902 artikulua aipatzen duen erruaren edo zabarkeriaren kontzeptua.

Gauzak horrela, Auzitegi Gorenaren 2018ko azaroaren 13ko Epaia (3700/2018) eman zen, jurisprudenzia txikiaren planteamenduak zuzentzen zituen. Hau da, aurretik preskripzioaren inguruan hitz egitean aipatu bezala, epai honek jurisprudenziaren ildo nahiko garbia markatu zuen; alde batetik, KZren 1968.2 eta 1.969 artikuluen arau-hausteari eta preskripzio-epaia zenbatzeari buruz, eta beste aldetik, KZren 1.902 artikulua inguruan doloa egoteari, elikagaiengatik bidegabe kobratutakoa itzultzeari eta kalte moral eta psikologikoengatik kalte-ordainak emateko akzioei dagokienez.

Doloari dagokionez, hori baita lantzen ari garen kontzeptua, epaimahaiak 4. ZOn organo beraren 1999ko uztailaren 22ko eta uztailaren 30eko epaiak aztertu eta hartu zituen erreferentziatzat esateko ez zela dolurik emanemandatuaren aldetik, izan ere, seme-alabatasun-prozesuan jakin zuen, egindako froga biologikoaren ondorioz, hiru seme-alaba biologikoetatik bigarrena ez zela senar ohiarena, eta, beraz, ez zela engainurik edo ezkutatzerik egon, eta, azken batean, semea jaiotzea eragin zuen desleialtasuna ez zela kalte-ordaina jasotzeko modukoa izango.

Era berean, kalte moralarekin lotzen du eta jurisprudenzia txikiaren planteamenduak zuzentzen ditu, adieraziz benetako aitatasuna ezkutatzek eragindako kaltea ez dela kalte ordaingarria. Ez du ukatzen horrelako jokabideek kaltea eragin dezaketarik, ukatzen duena da kalte horiek erantzukizun zibilari dagozkion akzioak (kontratuzkoa edo kontratuz kanpoko) erabiliz ordaintzea. Adierazten du zalantzarik gabe konplexua den eta familia-taldearentzat ondorio negatiboak dituen egintza dela, baina horrelako

jokabideak familia-harremanen eremu pribatura mugatzen direla, eta Zuzenbidea ez dela harreman horietan sartu behar.

Hala izan behar dela uste du, egoera horiek ezkontza-eginbeharrak ez betetzeari lotzen dituelako, zehazki, leialtasun-betebeharra ez betetzeari. Ildo horretan, azpimarratzen du nahiz eta apelazio-epaiak ez zuen kaltea desleialtasunarekin lotzen, baizik eta desleialtasunaren ondorioak ezkutatzearekin, fideltasun-betebeharra ez betetzea da aitatasunaren ezkutatzea eragiten duena. Betebehar hori zigor ezina bada eta horren ez-betetzea ordaingarria ez bada, era analogo batean arrazoitu behar da kaltea eragin duen jokabidea filiazioa ezkutatzea denean.

III. ERAGINDAKO KALTEAK

a. Kalteak definitzen

Belaunaldi berriko kalteen artean, ezkontideen arteko desleialtasun-kasuak nabarmentzen dira, azken urteotan auzitegietan gailentzen ari den gaia bihurtu delarik. Praktikan, aztertzen ditugun kasuetan bezala, senideen edo bizikideen artean eragindako kalteen erantzukizun zibila moraltasun-araua urratzen ez denean bakarrik erreklamatzeko da, edo, bizikidetza hori edo afektu-loturak hautsi direlako, ezkontza-krisi batean gertatu ohi den bezala, adibidez. Dakigunez, kalte-ordaina jaso daiteke osotasun fisiko eta psikikoari, osasunari, ohore edo intimitateari, sexu-askatasunari edo ondareari eragindako kalteengatik. Hala ere, batzuetan zaila egiten da ingurune hauetan bereiztea kalte konpentsagarriak eragiten dituzten jokabideak eta bikote harremanaren urraketan ez-ordaingarriak direnak (bereziki, kalte psikiko edo emozionalen arloan, fideltasun-, errespetu- eta elkarrekiko laguntza-betebeharren urraketa larrien ondoriozkoak).

Gure ordenamendu juridikoan «kalte» terminoa erabiltzen da, bai urratutako interesari erreferentzia egiteko, bai subjektuak jasaten dituen ondarezko eta ondarez kanpoko ondorioei buruz hitz egiteko, zeinak kalte-ordaina jasotzeko modukoak izango liratekeen.⁸⁷ Hori dela eta, badira zenbait jurista terminologiaren inguruan bereizketa egiteko beharra dagoela defendatzen dutenak, hau da, bereizi egin behar direla, alde

⁸⁷ CASAS PLANES, María Dolores. *De nuevo sobre la indemnización por daño moral y patrimonial por ocultación de la paternidad, tras la STS de 13 de noviembre de 2018 (ciertas referencias al derecho francés y angloamericano)*. ADC, LXXIV. liburukia, II. faszikulua. 2021. 470-471 orr.

batetik, legez kontrako ekintza edo ez-egiteak eragiten dituen interes edo eskubide babesgarrien aurkako eraso edo lesioa, eta, bestetik, ordaindu beharreko ondare-kaltea edota kalte morala, Espainiako doktrinak biak jotzen baititu kaltetzat, nahastea eraginez⁸⁸.

Edonola ere, kaltea sortu dela esaten dugunean, ezinbesteko elementua da babestutako interes juridikoaren urrapena. Gure kasuan, aitatasuna ezkutatzearan emazteak urratzen duen juridikoki babestutako ondasun edo interesa seme-alabatasunaren ziurtasuna eta gurasoen eta seme-alaben arteko legezko lotura eustea litzateke, gurasoen eta seme-alaben arteko legezko lotura galtzea eragiten duena, eta, ondorioz, seme-alabekin harremanak izateko eskubidea behin betiko desagerrarazi edo gutxitzea. Era berean, umearen ikuspuntutik norberaren jatorria ezagutzeko eskubidea⁸⁹ urratuko litzateke, baita egia biologikoa⁹⁰ ere.

i. Kalte ekonomikoak eta kalte moralak

Kalteen lehenengo sailkapena egiteko, kaltea pairatu duten subjektuak nortzuk izan diren kontuan hartuko ditugu. Aurretiaz adierazi bezala, horien artean aurkitzen dira, lehenengo eta behin, zuzenean iruzurra jasan duen gizona, eta bigarrenik, ustezko semea edo alaba. Gauzak horrela, bere burua aitatzat hartzen zuen gizon engainatuaren aldetik horrek jasan dituen kalteen azterketarekin hasiko gara, demandetan pisu gehien dutenak izategatik. Benetako aitatasun biologikoa ezkutatzearan ondorioz sortutako kalteei dagokionez, 2 motatako kalteak ezberdin ditzakegu: alde batetik, kalte ekonomikoak, eta beste aldetik, kuantifikatzeko eta baloratzeko zailagoak diren kalte moralak.

Kalte ekonomikoa esaten dugunean, gizon horren ondarean jasotako kalteari egiten diogu erreferentzia, sortzen diren gastuak edota lortu gabeko irabaziak, alegia. Hau da, ondare-kalteak gurasoak seme-alabei dagozkien betebeharrak betetzeko diruzko

⁸⁸ CASAS PLANES, María Dolores. op. cit. 470 or. eta MORENO MARÍN, María Dolores. *La configuración del daño moral*. “El daño moral causado a las personas jurídicas” liburuan. Dykinson. Madril, 2019. 41, 53, 54 orr.

⁸⁹ Jatorri biologikoa ezagutzeko eskubidea identitaterako eskubidearen parte da, baita giza eskubidea ere (1989ko Haurraren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioak 7. art.ak dio haurrak bere gurasoak ezagutzeko eta zaintzeko eskubidea duela). DE LORENZI, Mariana. *El derecho a conocer los orígenes biológicos. La necesidad de su reconocimiento para garantizar el derecho a la identidad personal de los adoptados y nacidos por reproducción humana asistida*. Dipòsit Digital de la Universitat de Barcelona. Tesis Doctorals. 2015. Eskuragarri hemen: <http://hdl.handle.net/2445/96722>

⁹⁰ Egia biologikoa printzipio garrantzitsua da seme-alabatasuna zehazteko orduan; izan ere, Espainiako ordenamenduaren asmoa da, ahal den neurrian, ugalketaren egitate biologikoa eta filiazio juridikoa bat etortzea. GONZÁLES PÉREZ DE CASTRO, Maricela. *La verdad biológica en la determinación de la filiación*. Dykinson. Madril, 2013. 23, 28 orr.

ekarpenaren ondorioz sortzen direnak lirateke, baita gurasoaren bisita-eskubidea gauzatzeko joan-etorrien gastuak (egotekotan). Baina, ez horiek bakarrik, ondare-eremuari eragiten dioten kaltetzat hartzen dira, halaber, kalte moralen deribatuak; adibidez, guraso askok errealitateaz jabetzean egiten dituzten mediku-terapiak, edo dauden gogo-aldartearen ondorioz galdutako produktibitate eta lan-aukerak⁹¹.

Beste alde batetik, **kalte morala**, XIX. mendeaz geroztik, negatiboki definitzen da, ondare-izaerarik ez duen kalte bezala⁹². Auzitegi Gorenak, 2001eko otsailaren 22ko AGEN, eman zuen kalte moralaren inguruko definizioa: “*Edozein frustrazio, apurketa edo haustura, funtsean guraso-loturengatik hurbilekoen artean ematen diren naturazko edo odolezko sentimendu, lotura edo afektuetan, legez kontrako egitate baten ondorioz, pertsona bati aldi baterako edo behin betiko kentzen zaionean legez kontrako horrek zuzenean kaltetzen duen pertsonaren presentzia edo bizikidetzat*”. Kasu hauetan, legez kontrako jokabidea emazteak aitatasuna senarrari ezkutatzea izango litzateke, eta hautsitako harremana edo lotura, aldiz, aitak semearekin edo alabarekin zuena.

Era berean, Valentziako 2004ko azaroaren 2ko PAEk kalte moralen inguruan gehitzen du kalte moralak ezin direla kalte materialen, gorputz-kalteetan edota sortzen ari diren kalteen barne sartu, eta ezin direla definitu erantzulearen legez kontrakoa gertatu ez balitz kaltetuak lortu ahal izango lituzkeen galdutako aukera edo abantailak bezala (8. ZO). Zentzu honetan, epai honek erakusten digu demandatzailearen eta bere seme-alaben arteko lotura biologikoa galtzearen ondoriozko kalte morala dagoela, argiago esanda, bere aitatasunik ezaren aurkikuntzaren ondoriozkoa. Auzitegiak larrizat eta frogatutzat jotzen ditu auzi-jartzaileak jasandako gaitzak, bere buruaz beste egiteko ideiangatik bizia arriskatu ere egin baitzuen, eta zuzenean lotzen du seme-alabatza jotzen zituenak galtzarekin eta haiekin zituen kontaktua eta lotura afektiboa galtzarekin. Medikuen arabera, sufrimendu hori adingabeen heriotzarena baino handiagoa izan daiteke, ezin baita dolurik egin jasandako galeraren erantzun gisa (9. ZO).

FARNÓS AMORÓS autoreak baieztatzen duenez, Auzitegi Gorenaren 1999ko epaietan, senar ohiei aitatasuna ezkutatzeagatik egindako erreklamazioetan kezkatzen ziena bere ohorean lesioa edo leialtasun-betebeharra ez betetzea zen, ezkontzaren barruan emazteak

⁹¹ Valentziako 2004ko azaroaren 2ko PAEn (597/2004) adierazten da aita zela uste zuenak antsietate-nahasmendu depresiboaren ondorioz sortutako lesio psikologiko larriengatik (peritu-proba medikoaren bidez egiaztatu zirenak), lan-jarduera galdu zuela.

⁹² PÉREZ GALLEGÓ, Roberto. op. cit. 160 or.

haren aurrean duen betebeharra apurto izana. Egun, ordea, kaltea beste esparru batera igaro dela adierazten du, hain zuzen ere, ordainaren funtsa gurasoaren eta seme-alaben arteko harremana galtzea da.⁹³ Izan ere, aitatasun hori ezabatzeak lotura biologikoa galtzea dakar, bai eta seme-alabatzat hartu zuenarekin zuen harremanetan jarraitzeko eskubidea galtzea eta etorkizuneko planak bertan behera geratzea ere⁹⁴.

Edozelan ere, kalte morala frogatutako kaltea izan behar du, hau da, benetan kalte hori sortu izana eta benetakoa izatea egiaztatuta geratu behar da. Gainera, kalteen existentzia frogatzea demandatzaileari dagokio, bera da frogaren karga duena (PZLaren 217 art.).⁹⁵ Hala da zeren kalte moralaren existentziaren froga ez baita froga-sistema orokorretik bereizten, horrela, arau orokorra da kalteen existentziaren eta hedaduraren froga biktimari dagokiola, prestasun eta froga-erraztasunaren printzipioak kontuan hartuz. Demandatzaileak frogatzeko bere esku duen tresnen artean, peritu-txosten psikologikoak aurkitzen dira, zeinak egia biologikoaren ezagutzarekin zuzenean lotutako sufrimendu, min edo depresio-koadro bat dagoela diagnostikatzen duten, adibidez⁹⁶.

Hala ere, esanguratsuak dira kalte moralaren nolabaiteko presuntzioa adierazten duten jurisprudentzia adierazpenak, horien artean lanean zehar aipatutako Leongo 2009ko urtarrilaren 2ko eta 30eko PAE daudelarik. Hauen arabera (lehenengoaren 3. ZO eta bigarrenaren 5. ZO), kalte morala ez da ez peritu-frogaren ez lekukoen frogaren xede; aitzitik, pertsona guztientzat komunak diren sentimenduen presuntzio inplizituan oinarritzen delako, eta, nolana ere, ez egindako frogak, ez ildo horretan egin zitezkeenak, beharrezkoak ez direlako auzitegiak agerikotzat jotzen duen ondorio batera iristeko; egoera horretan edozein pertsonari ziurtasun osoz mina eta sufrimendua eragiten zaiola, alegia.

Hori horrela, hurrengo galdera formulatzea ezinbestekoa egiten zaigu: kalteen existentzia frogatuta, bere seme-alabatzat zeukan eta bere gisa hazi zuena berea ez dela ohartzen denean, zer-nolako eta zenbateko kalte-ordaina erreklamatzeko eskubidea du?

⁹³ FARNÓS AMORÓS, Esther, op. cit., 33-36 orr.

⁹⁴ Leongo 2009ko urtarrilaren 30eko PAE (39/2009).

⁹⁵ BARCELÓ DOMÉNECH, Javier. *La carga de la prueba del daño y de la relación de causalidad*. Dykinson. Madril, 2008. 111-114 orr.

⁹⁶ Cádizeko 2008ko apirilaren 3ko PAEk (124/2008) uste du kaltea egiaztatuta dagoela txosten psikologikoetan oinarrituta. Beste aldetik, Valentziako 2017ko urriaren 16ko PAEk (6299/2017) ez du kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik aitortzen; izan ere, tratamendu medikoa edo egokitzenahasmendua, laneko bajak, txosten psikologikoak eta abar aurkeztu ezean, adierazten duelako ezin dela kalte morala egiaztatutzat jo.

ii. Kalteen kuantifikazio eta ordaingarritasuna

Aitatasuna ezkutatzek eragindako kalteek (ekonomikoek zein moralek) kalte-ordaina jaso dezaketen ala ez, eta Kalteen Zuzenbidea aplikatzea posible den edo ez, denborarekin eboluzionatzen joan den gaia da. Egunera arte, Auzitegiek kasu gehienetan (doloa edo erru larria bitartean dagoenetan) aitatasuna ezkutatzearen ondorio diren kalteek kalte-ordaina merezi duten kalte gisa hartu dituzte; bestalde, ez dago epairik, non desleialtasunetik eratorritako kalteek ordaina merezi duten. Horrela, Segobiako 2003ko irailaren 30eko PAE (186/2003) adierazi zuen: “*Desleialtasunek, abandonuek edo harreman pertsonaletan, adiskidetsuetan edo maitasun-harremanetan leialtasunik ez izateak eragindako kalteak kasu extrajuridikoen eremuan sartzen dira, eta ez dira ugaritu behar juridikoki babesgarriak ez diren interesak gorpuzten dituzten kalte moral ordaingarren kategoriak, horietan Zuzenbideak ez baitu inolako paperik jokatu behar*”.

Aurretiaz aipatu dugun bezala, frogaren zama demandatzaileari dagokion bezala, kalteen kuantifikazioa eta, ondorioz, horien kalte-ordainaren kuantifikazioa erabakitzea auzitegiei dagokie. Kalte moralak kuantifikazio aldakorra behar du, kasu bakoitzaren inguruabarren arabera; horregatik, quantuma zehazteko eta kalteen balorazioa egiteko, epaileek eta magistratuek balorazio desberdinak hartzen dituzte kontuan, baremo edo taula baten arabera kalte-ordaina ez baita bideragarria.

Horrela, Batzelonako 2007ko urtarrilaren 16ko PAEk (27/2007) ondorioztatu zuen⁹⁷ senarrak kalte moral argia jasan zuela eta seme baten heriotzak sortzen duen kaltearekin parekatu zuen kalte hori. Esku hartu zuten mediku guztien arabera, adingabeen heriotza baino sufrimendu handiagoa eragin dezakeen egoera da modu horretan egia biologikoaz jabetzea, bere burua aitatzat zuenak ezin baitu dolua egin jasandako galeraren erantzun gisa. Esan dezakegu alderatze hori kalte moralak baloratzeko zailtasunaren eta kasu hauetan jurisprudentziarik ezaren ondorio izan daitekeela. Hala ere, oso kritikatu izan den irizpidea da hau, adieraziz kalte morala ezin dela berdina izan guraso bati bere semearekin kontaktu oro kentzen zaionean (hiltzen denean), eta semetzat uste zuenarekin harremanak izatea posible den kasuetan; izan ere, a priori harremanik ez badago ere,

⁹⁷ Era berean, ikusi dugunez, Valentziako 2004ko azaroaren 2ko eta 2007ko irailaren 5eko PAEk ere bereganatu zuten aitatasun biologikoaren aurkikuntzagatik adingabeen heriotzaren konparazioa.

ondoren, lotura biologikoa zutela uste zuten pertsonen arteko harreman emozionalak nolabait berreskuratzeko aukera baitago⁹⁸.

Hainbat epai aztertu ondoren, ikus dezakegu epaile eta magistratuek hainbat parametro hartzen dituztela kontuan kalteen quantuma erabakitzeke, hala nola horien artean hurrengoak ditugu: aita ez zela jakiteak eragindako demandatzailearen ondorio fisiko edo psikikoen larritasuna, ezkontzaz kanpoko seme-alaben kopurua, haien adina, haiekin bizi izan den denbora, aita-seme-alaben arteko harremana nolakoa zen (harremanik eza zegoen) aitatasun ezaren adierazpen formala egin arte. Halaber, kontuan hartzen da aitatasunaren iruzurraren luzera (jaiotzatik egia ezagutu arte igarotako denbora), baita horren ondorioz haien arteko harremanaren haustura eman den edo ez; hots, ustez semea zenarekiko harreman afektiboari eusteko aukera dagoen ala ez. Nolanahi ere, esan bezala, jasandako kaltearen indarra aldatu egiten da kasu bakoitzaren inguruabarren arabera.

b. Ordaindutako elikagaien eta mantenuaren erreklamazioa

Benetako aitatasuna ezkututzen den kasuetan, uler daiteke bere burua aitatzat zuenak jasan behar ez zituen elikagaiak jasan dituela. Hori dela eta, gizon horrek emandako elikagaiak eta mantenua erreklamatzeko aukera aztertuko dugu, baita erreklamatzekotan, nori eskatu ahal dizkion eta noiztik eskatu ditzakeen ere. Mantenuaren erreklamazioaren inguruko eztabaida nagusiak dira, alde batetik; elikagai gisa ordaindutako kopuruak itzuli behar diren edo ez da, eta bestetik; zein akzio tarteratu behar den.

Bi jarrera jurisprudenzial nabarmentzen dira gaur egun, alde batetik, Espainiako auzitegien gehiengoa elikagaiak itzultzearen aurka dago, eta bestetik, gutxiengoa, elikagaiak itzultzearen alde agertzen da.⁹⁹ Jurisprudentzia txikiko epaiak (Probintzia Auzitegienak), 2015eko apirilaren 24ko AGE (elikagai gisa ordaindutako kopuruaren itzulketari buruzko doktrina finkatzen duena, baina ez baketsua, boto partikularra baitauka) eta 2018ko azaroaren 13ko AGE (argi ez zeuden eta eztabaidatuak ziren kontzeptuei amaiera eman nahi ziena) nabarmentzen dira.

⁹⁸ FARNOS AMOROS, Esther. *Indemnización del daño moral derivado de ocultar la paternidad Comentario a la SAP Barcelona, Sec. 18ª, de 16.1.2007*. Bartzelona, 2007ko urria. InDret 4/2007. 8-10 orr.

⁹⁹ DE LA IGLESIA MONJE, María Isabel. *Los alimentos del menor y la apariencia de paternidad. Su reclamación por el padre y el daño moral*. Revista Crítica de Derecho Inmobiliario. 755. zenbk., 2016. 1557 or.

Hasteko, doktrina-bide finkatuagoa sortzen duten Auzitegi Gorenaren epai berrienak baino jurisprudentzia txikiagoa -eta lehenagokoa- den auzitegien jarrera aztertu behar dugu. Hauei dagokienez, mantenuagatik diruaren itzulketaren alde agertzen dira, bai kasu horietan bidegabea den kobru edo ordainketa baten aurrean gaudela defendatzen dutelako (KZren 1.895 art.), eta, ondorioz, bidegabeko aberastea ematen dela, edo, bai kalte baten aurrean gaudelako, eta beraz, kontratuz kanpoko erantzukizuna ematen delako (KZren 1.902 art.). Lehenengo bidearen alde daudenek, defendatzen dute tarteratu beharreko akzioa, elikadura-pentsioen kasuan bidegabea kobratzearena dela (amaren kontra), eta bizikidetzako gastuengatik bidegabeko aberastearena (amaren kontra, eta, hala badagokio, aita biologikoaren kontra). Irizpide horri jarraitzen diote Cadizeko 2008ko apirilaren 3an, Leongo 2007ko urtarrilaren 2an eta Asturiasko 2009ko irailaren 28an emandako APEek. Baina, audientzien epaien desberdintasunera itzuliz, seme-alabatzat jotzen zenari ordaindutako elikagaien erreklamazioa KZren 1.902 art.aren bidetik egitean kalteak ordaindu behar direla dioten ebazpenak ditugu; horien artean Valentziako 2007ko irailaren 5eko APE eta Balearretako 2006ko irailaren 20koa.

Kontran, 2015eko apirilaren 24ko eta 2018ko azaroaren 13ko AGEk ditugu, arrazoi batengatik edo besteagatik ordaindutako elikagaien eta mantenuaren itzulketaren aurka agertzen direnak. Lehenengoarekin hasiz, ebazten dena da gizonak emazte ohiari erreklamatzeko diola alabarentzako mantenu gisa ordaindutakoa itzul diezaion, hitzarmen arautzailea hasi zenetik, lotura biologikoa ez zegoela adierazten zuen epai irmoa eman zenera arte (2002tik 2009ra bitartean). Erreklamazioa Kode Zibilaren 1.895 artikuluan oinarritzen da (gogora dezagun honek arautzen duela *“kobratzeko eskubiderik ez zegoen gauzaren bat jasotzen denean, eta oker baten ondorioz bidegabe entregatu denean, hura itzultzeko betebeharra sortzen dela”*), bidegabearen ordainketa itzultzeko bidetik, eta ez KZren 1.902 art.etik; Auzitegi Gorenak akzio egokitzat joko zuena. Esanguratsua da, hala ere, 2018ko azaroaren 13ko AGEk, oraingoan demandatzaileak egikaritu zuen KZren 1.902 art.ko akzioa oinarri hartuta ondare-kalteagatik kalte-ordaina ukatzen duela.

Gauzak horrela, bi epaietan arrazoi berdinak erabiltzen dira errekurtsioak ukatzeko, edo, hobeto esanda, 2015eko epaian eman ziren argudioak bereganatu zituen geroago 2018koak. Argudio horiek hurrengoak dira (2015eko AGE, 2. ZO):

Lehenik, akzio egokia ez erabiltzea. Auzitegiak baztertu egiten du kasua bidegabea dena kobratzeko arauen pean jorratu daitekeenik, KZren 1.902 artikuluko arauen pean egin behar dela esanez. Epaian beharrezko argudio guztiak biltzen dira bidegabeko ordainketa

baten aurrean gaudela jotzeko aukera suntsitzeko; adieraziz mantenua ordaintzea filiazioa aurkaratu arte zor dela, bidegabea ez delarik. Hori horrela, akzioa preskribatuta egongo litzateke, auzi-jartzaileak 2008ko irailaren 2ko epaiaren bidez alaba berea ez zela jakin baitzuen, urte bateko preskripzio epea gaindituz.¹⁰⁰

Bigarrenik, bidegabea kobratzeko baldintzak betetzen ez zirela argudiatu zuen, gogoratu hauek direla: a) zor bat azkentzea edo betebeharrak juridiko bat betetzea helburu duen ordainketa efektibo bat egitea (animus solvendi), b) ordaintzen duenaren eta jasotzen duenaren artean inolako betebeharririk ez egotea eta, ondorioz, ordainketa burutzeko kausa eza egotea, eta c) ordaintzen duenaren akatsa egotea. Horrela, adierazten du ez zela akatsik egon elikagaiak ordaintzerako orduan, haurra ezkontzan jaio eta Erregistro Zibilean inskribatu zenez, aitatasun-presuntzioa indarrean egonik (KZren 113-116 art.), elikatu beharra zegoelako, baita zaindu, beren konpainian eduki, hezi, ordezkatu eta beren ondasunak administratu ere (KZren 154 art.). Hau da, elikagaiak gizonak ordaindu behar zituen, momentu horretan formalki zor baitzuten, aita biologikoa zela uste zen bitartean legezko babesa egoteagatik, eta beraz, ez zegoela bidegabeko aberasterik¹⁰¹.

Ezkontza-filiazioa aurkaratzen duen epaiaren atzeraeraginari dagokionez, Salako kide gehienek uste dute mantenua adingabeari zor zitzaiola; judizialki auzi-jartzailea aita ez zela deklaratu arte zor delako. Horrela, ordainketak legez ezarritako betebeharrak baten ondorioz egin ziren, ordaintzen zuenaren eta prestazio horren onuradunaren artean, betebeharrak hori eraginkorra delako errealitate biologikoa deuseztatzen den arte; ezkontza-filiazioa aurkaratzeko prozesuan emandako epaiaren bidez.

Halaber, KZren 112 artikuluari jarraiki esaten dute, filiazioak ondorioak sortzen dituela gertatzen denetik eta haren legezko zehaztapenak atzeraeraginezko ondorioak dituela, betiere atzeraeragina haien izaerarekin bateragarria bada eta legeak kontrakoa xedatzen ez badu. Horrela, adingabearentzat positiboa denean soilik emango litzateke

¹⁰⁰ GARCIA AMADOK Auzitegi Gorenaren beste traba bat bezala interpretatzen du, aitatasun falsuagatik edo seme-alabentzako gastu eta elikagaiengatik sortutako kalteengatik kalte-ordainak onartzeko aurretiaz jarritako oztopen artean. [GARCÍA AMADO, Juan Antonio. *¿Devolución de alimentos...* op. cit.]

¹⁰¹ Zentzu honetan, RIVERO HERNÁNDEZek ukatzen du emandako elikagaiek edo seme-alabaren zaintzarako ordaindutako zenbatekoek bidegabea dena ordaintzea edo dohaintza osatzen dutela, baizik eta filiaziotik eratorritako betebeharrak betetzea adierazten dutela. [RIVERO HERNÁNDEZ, Francisco. *Comentario al artículo 112 del Código Civil, Comentario del Código Civil, T.I*, Secretaria General Técnica. Ministerio de Justicia, Madril, 1991. 438 or.]

atzeraeragina¹⁰², honen interes gorena delako beti babestu nahi dena. Hori dela eta, aita zela uste zuen garaian emandako elikagai eta mantenua ezin dira inoiz itzuli, momentu horretan bere betebeharra zelako¹⁰³.

Baina, auzi honetan lortu nahi zena ez zen mantenu-eskubidea atzeraeraginezko izaeraz ondorioz gabe uztea, baizik eta engainupean eta funtsezko oinarririk gabe ordaindutako elikagaiak aurreztu zituen amaren kontra joatea. Hau da, ez neskatoari bost urte horietan izandako elikagaiak inola ere ez bueltatzeko eskatzea, baizik eta amak aitari itzultzea berari (edo aita biologikoari) egokitu zitzaiona eta gizonak ordaindu zuena. Hogei mila euro horiek ez lituzke alabak galduko, amak baizik; ordea, epai honekin, ez lituzke alabak irabaziko, amak baizik, gizonaren kontura, Salak ez baitu 1.895 art. aplikatu nahi izan.¹⁰⁴

Hori esanda, epaian 2 magistratuen boto partikularra eman zen. Beren desadostasuna argi utzi zuten, adieraziz bidegabea dena kobratu ahal izango litzatekeela, epaian eskatzen dena ez delako “kontsumitutako elikagaiak itzultzea”, baizik eta “elikagai-pentsio gisa ordaindutako kopuruak” itzultzea gurasoen arteko bizikidetza haustean elikagai-pentsioa ordaintzeko betebeharra sortzen denetik, eta ez, jaiotza momentutik. Nabarmentzen dute, ezkontzaz kanpoko alaba izanik, mantenu-betebeharra solidarioki benetako gurasoei dagokiela, eta gainera, ekintza ez dela alabaren aurkakoa, baizik eta elikagaiak ematera behartuta zegoen pertsonaren aurkakoa; amaren aurkakoa, alegia (2. ZO).

Era berean, azaltzen dute deskribatutako egoera bat datorrela KZren 1.895 artikularekin, argi baitago kobratzeko eskubiderik ez zegoen eta akats baten ondorioz oker entregatutako gauza bat eman zela, itzultzeko betebeharra egonik. Beraz, kasu honetako ordainketak kausarik ez duenez, akatsean oinarritutako ordainketa izateagatik, bidezkoa dela itzulketa, KZren 1.901 art. arabera, inoiz eman behar ez zen zerbait entregatu baitzen. Bestela, benetako obligaziodunak (amak) legez kontra lortutako etekina babestuko litzateke; bistan delako, mantenurako legezko betebeharraren baten babesean aldizkako ordainketak lortu zituela, eta, printzipioz, berak eman behar zituelako osorik.

¹⁰² Baina ez kontrako hipotesian, beste kasu batzuetan gertatzen den bezala, hala nola adopzioaren azkentzean (KZko 180.3 art.), ezkontzaren deuseztasun-deklarazioan (KZko 79 art.) edo mantenu-hartzailearen heriotzaren kasuan (KZko 148.3 art.).

¹⁰³ Epaiak gaineratzen duenez, atzeraeraginik ezaren printzipioa (elikagaiak ez itzultzea) 1913ko apirilaren 18ko AGE zaharrean du jatorria. Epai horren arabera: “jasotako pensioak, neurri batean ere ez, ezin dira itzuli, bizitzaren premiazko beharrezanetan kontsumitutakoak izateagatik”.

¹⁰⁴ GARCÍA AMADO, Juan Antonio. *¿Devolución de alimentos...* op. cit.

Bat gatzat epaiaren boto partikularrean islatutako iritziarekin, eta hala egiten dute baita gaia jorratu duten juristen gehiengoak¹⁰⁵, frogatuz eztabaida bere horretan jarraitzen duela, gaia baketsua ez den heinean.

Bukatzeko, Auzitegi Gorenak 2018ko epaian jasotzen ditu aurreko AGE horren oinarriak ondare-kaltearen kalte-ordaina ukatzeko, adingabearen interes gorenari eta familiaren babesari helduta. Azken epai honen harira, egoera antzekoa zen: ezkontzak zirauen bitartean 3 seme-alaba jaio ziren, 2001ean epai bidez banandu zen bikotea eta hitzarmen arautzailean xedatu zen aitaren kontura hiru seme-alaben elikagaiengatik eman zitezkeen beharren %40ko pentsioa ordaindu behar zuela. Filiazio-prozesu baten ondoren, gizonaren aitatasun-eza deklaratu zen seme batekiko, eta demanda bat aurkeztu zuen bere emaztearen aurka, beste kontzeptu batzuen artean, 35.304,37 euro erreklamatzuz semeari ordaindutako elikagai-pentsio gisa.

Horrela, epaiak 3. ZOan argudiatzen du, orain itzulketa 1.902 artikulua babesean planteatzen dela egia bada ere, “konponbidea berbera” dela; haurra ezkontza-harremanean jaio den bitartean, aitatasunaren presuntzioa dela-eta, demandatzaileak elikagaiak eman behar zituen guraso-ahala osatzen duten betebeharrak izateagatik. Elikagai horiek eragina izan dute haurraren bizitzako une bakoitzean, semea elikatu behar zelako, eta ezin direla itzultzeko eskatu benetako aitatasuna bat ez datorrenean, berriro ere ez itzultzearen jatorria 1913ko apirilaren 18ko AGE zaharrean dagoela adieraziz, eta elikagaiak kontsumigarriak direnez, seme-alabatasuna gertatzen denean atzeraeraginezko ondorioak izatea ezinezkoa delaren ideiarekin batera (KK 112. artikulua). Beraz, laburbilduz, semearen mantenurako ordainketak, aitari zegokion legez ezarritako betebeharrak baten ondorioz egin ziren, eta ez lukete kalte ordaingarria osatuko.

Gauzak horrela, ondorioztatzen dugu Auzitegi Gorenak eragozpen asko jartzen dituela aitatasun faltsuagatik edo seme-alaben gastu eta elikagaiengatik sortutako kalteen kalte-ordainak onartzeko. Bata dela edo bestea dela, ezin da kalte ordainik jaso; bide batetik joz gero, bestea erabili behar dela dio, eta hori erabiltzerakoan, berriro ezeztatzen du.

Gure uste apalean, existitzen den eta galdagarria den zor edo betebeharrak bat dagoen bitartean, zeina zordunak (gure kasuan ama edo aita biologikoa izango zena) ordaindu

¹⁰⁵ Hala nola, Carmen MUÑOZ GARCÍA (*Comentario de la Sentencia del Tribunal Supremo de 24 de abril de 2015 (1933/2015)*). 2015. 642-648 orr.), Juan Antonio GARCÍA AMADO (*¿Devolución de alimentos...* op. cit.), María Dolores CASAS PLANES (op. cit. 499-506 orr.) eta Irantzu BERIAIN FLORES (*La determinación judicial...* op. cit.), beste askoren artean.

ordez, hirugarren batek (amaren senarra edo bikotea) ordaintzen duen, zuzenbideak eskaintzen duen tresnaren bat erabiltzea posible izan beharko litzateke azken honen interesak babesteko; errenboltso-akzioa (KZko 1.158 art.), adibidez¹⁰⁶.

c. Kalteak seme-alabaren ikuspuntutik.

Lanean zehar jorratu dugun hipotesi honetan bi motatako kalteak aurki daitezke: alde batetik, jadanik erreferentzia egin diegun desleialtasuna pairatzen duen senarrari eragindako kalte moral eta ondarezkoak, eta, beste aldetik, semeari egindako kalteak, zeinak uste izan duen amaren senarra bere benetako aita zela, benetan horrela ez delarik. Bigarren hauek dira oraingo atal honetan jorratuko ditugunak.

Ezkontideen arteko kalteei aplikatu diegun ikuspegia gurasoen eta seme-alaben arteko harremanetan kalteak eragiten dituzten kasuetara zabal daiteke neurri handi batean. Izan ere, seme-alaba adingabeen nortasun-eskubideak urratzen diren kasuetan, hala nola askatasuna, osotasun morala, ohorea, intimitatea edo norberaren irudia, gurasoak beren seme-alabei kalte-ordaina ematera behartu ahal izango dira.

Jakina, ez dago inolako immunitaterik edo pribilegiorik zeintzuek gurasoen aurka erreklamatzeko aukera baztertzen duten, baldin eta semeak jasandako kalteak egotzi ahal bazaizkie, bai guraso-erantzukizunak gauzatzeagatik, bai kalte horiek gurasoen eta seme-alaben arteko harremanek berezko duten gizarte-harremanaren ondorio badira. Ondorioz, teoriarik ez du eragozten seme-alaba adingabeen izenean erantzukizuna eskatzeko akzio bat zuzentzea gurasoetako batek eragindako kalteengatik¹⁰⁷.

Momentura arte, gure jakinaren gainean, seme-alabak amari zuzendutako demandarik planteatu ez badira ere, RODRIGUEZ GUITIAN autorearen aburuz, hasiera batean arrakasta izan dezakete hurrengo arrazoiak direla eta. Alde batetik, denboran zehar, amaren portaeraren bidez, pertsona orok bere jatorri biologiko eta genetikoa ezagutzeko duen eskubidea kaltetu delako, eskubide hori EK 39.2 artikuluan aurkitzen delarik, legeak aitatasunaren ikerketa ahalbidetuko duela ezartzen duenean. Beste aldetik, EK 15. artikuluan jasotzen den osotasun morala ere kaltetu delako, jatorria bera ezagutzeko

¹⁰⁶ BERIAIN FLORES, Irantzu. *La determinación judicial...* op. cit.

¹⁰⁷ DE LA IGLESIA MONJE, María Isabel. *La ocultación de la madre de sus dudas sobre la paternidad y el daño moral*. Revista Crítica de Derecho Inmobiliario. 777. zenbk., 2016. 471 or.: “Adingabeak, defendatzaile judizial baten bidez, kalteak erreklamatzeko demanda aurkez dezake gurasoen aurka, edo, gutxienez, amaren aurka.”

ezintasunak nahasmendu psikiko larriak eragin baititzake.¹⁰⁸ Zentzu horretan ere, adingabeak benetako aitatasuna ezkutatu zionaren aurka erreklamatu ahal izatearen alde agertzen da MUÑOZ GARCÍA, kontuan hartuta Konstituzioak seme-alabatasun juridikoa biologikora egokitu nahi izan duela, seme-alabatasunaren arloko egiazkotasun-printzipioa egia bihurtzeko eta, horrela, seme-alaben babes osoa ahalbidetzeko.¹⁰⁹

JOSÉ LUIS DE DIOS haur-psikiatrak azaltzen duenez, haur batentzat izugarria da, bat-batean, betidanik erreferente izan duen aitaren figurak, bizitza osoan aurrera atera duen eta emozionalki atxikimendu handia dion gizonak, aita ez dela esatea eta bere abizenak kentzea.¹¹⁰ Semearengan kalte moralak sortzen dira (sufrimendua, trauma-osteko estresa...), bai aita biologikoa ezagutzeko eskubidea ukatu zaiolako, bai bat-batean bere benetako aita zela uste zuena jada ez dela konturatzen delako. Seme edo alaba batentzat esperientzia traumatikoa da, bat-batean, beti erreferente gisa izan duen aitaren figura jada ez dela jakitea. Egia da, kalte moralak gehiago edo gutxiago izan daitezkeela, kasu zehatz bakoitzean eta zirkunstantzien arabera, baina egon, badaude. Gainera, kalte moraletatik zeharka datozen ondare-kalte batzuk ere eman litezke, esate baterako, tratamendu psikologikoen edo mediku kontsultek eragindako gastuak.

Posible litzateke haurrarentzat hain ondorio kaltegarriak saihesteko aitatzat hartu izan zenaren eta seme-alaba horien arteko harremana mantentzea.¹¹¹ Egoera honen alde agertu zen 2013ko azaroaren 20ko AGE (679/2013), zeina bikotekideak adoptatutako alabaren zaintza eta jagoletza senarrari esleitzeari buruzkoa den, baita beste neskaren zaintza eta jagoletzarena ere, nahiz eta senarraren filiazioaren aurkaratze judizialaren ondoren, aitatasuna beste hirugarren baten alde zehaztu. Hala eman zen adingabearen interesa gailentzearen printzipioari jarraiki. Hari beretik, 2019ko martxoaren 1eko AGEk (126/2019) ere defendatzen duen ideia izan da. Azken epai honek alaba adingabearen bizitzako lehen 3 urteetan berarekin bizi izan zen gertukoarekin bisita- eta komunikazio-erregimenak bere horretan mantentzea ahalbidetu zuen (gero bere aita biologikoa ez zela

¹⁰⁸ RODRIGUEZ GUITIÁN, Alma Maria. *Responsabilidad civil en el derecho de familia. Especial referencia al ámbito de las relaciones paterno-filiales*, Civitas, Thomson Reuters, Aranzadi SA, Zizur Txikia, Nafarroa, 2009, 171. Or.

¹⁰⁹ MUÑOZ GARCÍA, Carmen. op. cit. 640 or.

¹¹⁰ Adierazpen horiek ORTIZ, Ana Maria. *Ya no quiero ser tu padre* artikuluan jasotzen dira, El Mundo egunkarian argitaratua, 2003ko urriaren 16an, 5072. zenbk.

¹¹¹ LÓPEZ DE LA CRUZ, Laura. op. cit. 29-30 orr.: “*Agian planteatu beharko litzatekeena da ahaidetasunik ez duten adingabeak hazi dituzten helduen arteko lotura juridiko berri bat eratzea (bikotekidearen aurreko seme-alabak edo beren seme-alabak zirela uste zutenak), horrela ez da nahitaez kontaktua galdu behar eta haiekin harremanak izateko eskubideari eutsi ahal zaio.*”

jakin zen), alabaren interes gorena kontuan hartuta, gizon horrek aitaren rola bete baitzuen bizitzako lehen hiru urteetan; hori ezabatzea akatsa litzatekeela defendatuz.

Amaitzeko, geure buruari galdetu beharko genioke, egia biologikoak gure ordenamenduan duen garrantzia kontuan hartuta (EKn araututa dagoen punturaino eta giza eskubidea den heinean¹¹²), hain garrantzitsua bada, nola gera daiteke zigorrik gabe aitatasun biologikoaren printzipio konstituzionalen aurka faltsutzen eta engainatzen duen amaren jokabidea?

ONDORIOAK

Familiako erantzukizun zibilari buruzko alderdi garrantzitsuenak aztertu ondoren, honelako gai larri bati irtenbidea ematerako orduan Espainiako ordenamendu juridikoan dauden gabezien kopuruaz ohartu naiz.

Lehenik eta behin, esan beharra dago ezkontza-betebeharrak ez direla betebeharrak zibilak eta ez dutela inolako zehapenik; horregatik, ezin dira onartu horien ez-betetzeen kalte-ordaina. Bikoteari ez laguntzea edo etxeko lanak ez partekatzea, edo leial ez izatea ez dira berez legez kanpoko portaerak. Era berean, desleialtasunagatiko tristura, desesperazioa, malenkonia, etab. bizitzaren arriskuen parte dira, ezkontzen denak edo harreman-sentimentala duenak bere gain hartzen duen arriskua. Hala, sentimendu horiek ezin dira kalte moral ordaingarritzat hartu. Ekintza horiek merezi duten gaitzespen morala gaitzespen juridiko batera areagotzen badugu, konstituzioak babesten duen pertsonen askatasunaren funtsezko eskubidearekin talka egingo genuke.

Hala ere, harreman sentimental baten esparruan, ezkontzakoala izan ala ez, muga batzuk gainditzen direnean, orduan erantzun behar du ordenamenduak. Hori horrela da, noski, delituzko jokaeren eremuan; hala nola, tratu txarren eremuan. Gauza bera gertatzen da kasu honetan ere, desleialtasunak berekin dakarrenean aitatasun faltsu baten ezarpena,

¹¹² Jatorri biologikoa ezagutzeko eskubidea giza-eskubidea izateko bezain garrantzitsua dela onartu da, pertsonen ongizate psikikoaren funtsezko elementutzat jotzen baita haien jatorria ezagutzea. Ezagutzeko eskubide hori eskubide zabalago baten dimentsioetako bat da, identitaterako eskubidearena, alegia. [IGAREDA GONZÁLEZ, Noelia. *El derecho a conocer los orígenes biológicos versus el anonimato en la donación de gametos*. Derechos y Libertades. ISSN: 1133-0937. 31 zenbk., 2014 ekaina. 277 or.]

non subjektu bat -ezkontidea edo bikotekidea- guraso eta seme-alaben arteko harreman baten tartean sartuta dagoen.

Nahiz eta, gizabanakoei nahi duten pertsonarekin seme-alabak izateko eskubidea edo askatasun aitortu, edo, gutxienez, jokabide horrengatik juridikoki zigortua ez izateko eskubidea izan, ezin zaio inori onartu harremanaren konfiantzaz baliatuz, bikoteari aitatasuna esleitzea. Zigortua izan behar da bestearen eremu pertsonalean eragiten duen kalteagatik, halako moldez non, aitatasun faltsuaren esleipena dolozkoa nahiz erruzkoa izan, portaera antijuridikoa den, eta eragindako kaltea ordaintzeko betebeharra sortzen duen, horrek dakarren guztiarekin (kalte morala, kalte ekonomikoa, mantenuagatik ordaindutakoa itzultzea...).

Zentzu horretan, ulertzen dut, semeak berak kalteen erreklamazioa egiteko aukera onartu behar dela, senarraren edo bikotearen egoera bera baita, baina beste ikuspegi batetik.

Hori esanda, nire uste apalean, epaitegiek hainbeste traba jartzen dituzte, ez baitute nahi gero eta kasu gehiago ezagutzera eraman dezakeen eskandalu moduko bat agerian utzi nahi (demanda mordoa izatearen beldurra), kalteak kuantifikatzea oso zaila delako, baita ez dagoelako horrelako egoeretara egokitzen den erregulazio egokirik.

Amaiera bezala, esan dezakegu doktrinak eta jurisprudentziak egiteko bat dutela familia-zuzenbidearen arloan, kalte-ordaina eskatzeko gaitasuna ematen duten jokabideak zehazterako orduan ez baitira erabat ados jartzen.

BIBLIOGRAFIA

1. ALGARRA PRATS, Esther. *Incumplimiento de deberes conyugales y responsabilidad civil*. MORENO MARTÍNEZ, Juan Antonio. *La responsabilidad civil en las relaciones familiares* liburuan, 11-60 orr. Dykinson. 2012.
2. ÁLVAREZ OLALLA, María del Pilar. *Prescripción de la acción ejercitada por el marido contra su ex mujer por daños sufridos al determinarse judicialmente la filiación extramatrimonial de una hija, previamente inscrita como matrimonial, comentario a la STS de 14 de julio de 2010*. Aranzadi Civil: Revista Doctrinal, ISSN 2175-5890, 9. zenbk., 2011.
3. BARBER CÁRCAMO, Roncesvalles. *La declaración de inconstitucionalidad de los arts. 136.1 y 133.1 CC (LEG 1889, 27)*. “La legitimación del progenitor para reclamar su paternidad” artikuluan. Revista Doctrinal Aranzadi Civil-Mercantil. 11/2006 zenbk. Aranzadi, Zizur Txikia. 2006.
4. BARCELÓ DOMÉNECH, Javier. *La carga de la prueba del daño y de la relación de causalidad*. Dykinson. Madril, 2008.
5. BARCIA LEHMANN, Rodrigo eta RIVERA RESTREPO José M., *¿En qué casos el incumplimiento de deberes del matrimonio genera responsabilidad civil? Ius et Praxis aldizkaria*, 2. Znbk. 2014.
6. BERCOVITZ RODRIGUEZ-CANO, Rodrigo. *Manual de Derecho Civil. Derecho de Familia*. 4. argitalpena. Bercal, Madril, 2015.
7. BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, Rodrigo. *Tratados, Comentarios y Practicas Procesales*. Tirant Lo Blanch. 1. edizioa. 2013.
8. BERIAIN FLORES, Irantzu. *La adopción del hijo del cónyuge o de la pareja*. Tirant Lo Blanch. Valentzia, 2014.
9. BERIAIN FLORES, Irantzu. *La determinación judicial tardía de la filiación paterna y el retraso desleal de la madre al reclamar el reembolso de la obligación de manutención del hijo mayor de edad. Comentario a la STS de 29 de septiembre de 2016*. Cuadernos Civitas de jurisprudencia civil, ISSN 0212-6206, 104. zenbk., 2017.
10. BERROCAL LANZAROT, Ana Isabel. *La extinción de la prestación de alimentos de los hijos mayores de edad*. Revista Crítica de Derecho Inmobiliario, 777 zenbk. 2020.
11. BERROCAL LANZAROT, Ana Isabel. *La pensión de alimentos de los hijos menores de edad y los gastos extraordinarios*. Revista Crítica de Derecho Inmobiliario, 737 zenbk. 2013.

12. CASAS PLANES, María Dolores. *De nuevo sobre la indemnización por daño moral y patrimonial por ocultación de la paternidad, tras la STS de 13 de noviembre de 2018 (ciertas referencias al derecho francés y angloamericano)*. ADC, LXXIV. liburukia, II. faszikulua. 2021.
13. CASTAN TOBEÑAS, José. *Derecho civil español, común y foral*. II. Bolumena: *Relaciones paterno-filiales y tutelares*, 5. Liburukia: *Derecho de Familia*, 10. argitalpena. Madril, 1995. Berrikuspena: GARCÍA CANTERO, Gabriel.
14. DE AMUNÁTEGUI RODRÍGUEZ, Cristina. *El deber de fidelidad entre los cónyuges: daños por incumplimiento en el tratamiento de los tribunales españoles*. Revista IUS, 14. Bolumena, 46. zenbk., 2020.
15. DE LA CÁMARA ÁLVAREZ, Manuel, *Paternidad y filiación. Comentarios al Código Civil y Compilaciones Forales, Tomo III, Vol 1º: Artículos 108 a 141 del Código Civil (2ª edición)*.
16. DE LA IGLESIA MONJE, María Isabel. *La ocultación de la madre de sus dudas sobre la paternidad y el daño moral*. Revista Crítica de Derecho Inmobiliario. 777. zenbk., 2016.
17. DE LA IGLESIA MONJE, María Isabel. *Los alimentos del menor y la apariencia de paternidad. Su reclamación por el padre y el daño moral*. Revista Crítica de Derecho Inmobiliario. 755. zenbk., 2016.
18. DE LORENZI, Mariana. *El derecho a conocer los orígenes biológicos. La necesidad de su reconocimiento para garantizar el derecho a la identidad personal de los adoptados y nacidos por reproducción humana asistida*. Dipòsit Digital de la Universitat de Barcelona. Tesis Doctorals. 2015.
19. DÍEZ-PICAZO, Luis eta GULLÓN, Antonio. *Sistema de derecho civil*, IV. Bolumena, 1. Liburukia, *Familia Zuzenbidea*, 12. argitalpena. Tecnos. Madril, 2018.
20. DUPLÁ, Teresa. *El presente del pasado: el principio mater semper certa est y su reflejo en la actual legislación sobre reproducción humana asistida*. RIDROM. Revista Internacional de Derecho Romano. Bartzelona, 2019.
21. ESPÍN ALBA, Isabel. *Daño moral por ocultación de la verdadera paternidad y responsabilidad parental*. Revista Crítica de Derecho Inmobiliario, 758. zenbk., 2016.
22. FARNOS AMOROS, Esther. *Indemnización del daño moral derivado de ocultar la paternidad Comentario a la SAP Barcelona, Sec. 18ª, de 16.1.2007*. Bartzelona, 2007ko urria. InDret 4/2007.

23. FARNOS AMOROS, Esther. *Remedios jurídicos ante la falsa atribución de la paternidad*. ISSN: 1133-8768. 25. zenbk., urtarrila-abendua 2011.
24. FEMENÍA LÓPEZ, Pedro J. *La determinación de la filiación «en interés del menor*. Dykinson. Madril, 2019.
25. FERRER I RIBA, Josep. *Relaciones familiares y límites del derecho de daños*. InDret 4/2001. Bartzelona, 2001ko urria.
26. FIERRO LUNA, Fernando. *Valores y relaciones familiares*. Consejo Nacional de Fomento Educativo. Mexico, 2008.
27. GARCÍA AMADO, Juan Antonio. *¿Devolución de alimentos pagados al hijo que no lo era?* Almacen de Derecho, 2015ko urriaren 1a.
28. GARCIA AMADO, Juan Antonio. *¿Hay deberes matrimoniales?* Almacen de Derecho, 2015ko uztailaren 11.
29. GARCÍA AMADO, Juan Antonio. *Sobre aquellas dos extrañas sentencias del Tribunal Supremo de 1999*. Almacen de Derecho, 2016ko urriaren 30a.
30. GARCÍA PRESAS, Inmaculada. *La Patria Potestad*. Dykinson. Madril, 2013.
31. GONZÁLES PÉREZ DE CASTRO, Maricela. *La verdad biológica en la determinación de la filiación*. Dykinson. Madril, 2013.
32. GONZÁLEZ HERNÁNDEZ, Rut. *Responsabilidad extracontractual y contractual: barrera entre ambas*. Anuario Jurídico y Económico Escurialense, XLVI. ISSN: 1133-3677. 2013.
33. HERRERA CAMPOS, Ramón. *Comentarios científico-jurídicos a Ley 14/2006. de 26 de mayo, sobre técnicas de reproducción humana asistida*. Dykinson. 2009.
34. IGAREDA GONZÁLEZ, Noelia. *El derecho a conocer los orígenes biológicos versus el anonimato en la donación de gametos*. Derechos y Libertades. ISSN: 1133-0937. 31 zenbk., 2014 ekaina.
35. LACRUZ BERDEJO, José Luis (Egilekidea). *Elementos de Derecho Civil*. IV. Bolumena: *Familia*. Dykinson. Madril. 2010.
36. LACRUZ BERDEJO, José Luis (Egilekidea). *Familia Zuzenbidea*. I. Bolumena. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. 1996.
37. LLEDÓ YAGÜE, Francisco eta MONJE BALMASEDA, Oscar. *Las relaciones paternofiliales, adopción y potestad parental*. Dykinson. ISBN: 978-84-9148-145-4. 2007.
38. LÓPEZ DE LA CRUZ, Laura. *El resarcimiento del daño moral ocasionado por el incumplimiento de los deberes conyugales*. InDret, Revista para el Análisis del Derecho, 4/2010.

39. LOPEZ DE LA CRUZ, Laura. *Contenido actual de los deberes conyugales*, InDret, Revista para el Análisis del Derecho, 2010.
40. MARTÍNEZ DE AGUIRRE ALDAZ, Carlos. *Curso de Derecho Civil, vol. IV Derecho de Familia, La filiación*, 5. edizioa. Madrid, 2016.
41. MONJE BALMASEDA, Oscar. *Comentario al párrafo primero del art. 136 cc. "Estudio sistemático de la Ley 26/2015"* liburuan. Dykinson. Madril, 2018.
42. MONTERROSO CASADO, Esther. *Responsabilidad civil y consecuencias derivadas del incumplimiento del deber de fidelidad*. Revista Crítica de Derecho Inmobiliario, 773 zenbk. 2019. 1559-1562 orr.
43. MORENO MARÍN, María Dolores. *La configuración del daño moral. "El daño moral causado a las personas jurídicas"* liburuan. Dykinson. Madril, 2019.
44. MUÑOZ BENITO, Lucía. *La filiación derivada de técnicas de reproducción asistida*. REDUR 14/2016. ISSN 1695-078X.
45. MUÑOZ GARCÍA, Carmen. *Comentario de la Sentencia del Tribunal Supremo de 24 de abril de 2015 (1933/2015). Reembolso de las cantidades satisfechas en concepto de alimentos tras declararse la inexistencia de relación paterno filial*. BOE Biblioteca jurídica. 2015.
46. MURILLAS ESCUDERO, Juan Manuel. *La responsabilidad civil extracontractual por daños morales en la relación conyugal*. REDUR. 2015eko abenduaren 13an. ISSN 1695-078X.
47. ORTIZ, Ana Maria. *Ya no quiero ser tu padre*, El Mundo, 5072. zenbk. 2003ko urriaren 16a.
48. PÉREZ GALLEGO, Roberto. *Nuevos daños en el ámbito del derecho de familia: los daños morales y patrimoniales por ocultación de la paternidad biológica*. Revista de Derecho Civil. II. Bolumena, 3. zenbk., uztaila-iraila 2015.
49. POZANCO NIETO Miriam eta ROVIRA DEL RIO Eduardo Jesús. *Consecuencias legales de la infidelidad en el derecho español: una aproximación jurisprudencial*. Revista Vía Iuris, 16. Zenbk., urtarrila-ekaina 2014.
50. RIVERO HERNANDEZ, Francisco (egilekidea). *El nuevo régimen de la Familia, II Filiación, patria potestad, economía del matrimonio y herencia familiar*. Civitas, Madril, 1981.

51. ROCA TRÍAS, Encarna. *La responsabilidad civil en el Derecho de familia. Venturas y desventuras de cónyuges, padres e hijos en el mundo de la responsabilidad civil*, Perfiles de la responsabilidad en el nuevo milenio, Dykinson. Madril, 2000.
52. RODRÍGUEZ ADRADOS, Francisco, *Las reformas del Código civil por Leyes de 13 de mayo de 1981 y 7 de julio de 1981, La filiación*, Instituto Nacional de Estudios Jurídicos. Madril, 1983.
53. RODRÍGUEZ GUITIÁN, Alma María. *De nuevo sobre la reparación de los daños en el ámbito del matrimonio a propósito de la STS de 14 de julio de 2010*. Diario La Ley, ISSN 1989-6913, 7582. zenbk., 2011.
54. RODRIGUEZ GUITIÁN, Alma Maria. *Responsabilidad civil en el derecho de familia. Especial referencia al ámbito de las relaciones paterno-filiales*, Civitas, Thomson Reuters, Aranzadi SA, Zizur Txikia, Nafarroa, 2009.
55. SALVADOR CODERCH, Pablo eta RUIZ GARCÍA, Juan A. "Comentario sobre el art. 1 del Código de Familia", EGEA FERNÁNDEZ, Joan eta FERRER RIBA, Josep autoreen *Comentarios sobre el Código de Familia, la Ley de relaciones estables y la Ley de situaciones de convivencia de ayuda mutua* liburuan ikusia. Tecnos. Madril, 2000.
56. TORRELLES TORREA, Esther. *La elección del orden de los apellidos por parte de los progenitores y los criterios de determinación a falta de acuerdo en la Ley de Registro civil 2011*. Revista Crítica de Derecho Inmobiliario, 753. zenbk., 185-222 orr. 2016.
57. VAQUERO PINTO, M.^a Jose. *La filiación extramatrimonial*. M. YZQUIERDO TOLSADA eta M. CUENA CASAS, *Tratado de Derecho de Familia, vol. VI*. Thomson Reuters Aranzadi. Nafarroa, 2016.
58. VERDERA SERVER, Rafael. *Comentario al artículo 109 del Código Civil en Comentarios al Código Civil, tomo I*. Tirant lo Blanch. 2013, otsaila.
59. YZQUIERDO TOLSADA, Mariano. *Comentario de la Sentencia del Tribunal Supremo de 13 de noviembre de 2018 (629/2018). Ocultación al marido de la verdadera paternidad. Consecuencias para el Derecho de familia y para la Responsabilidad civil*. BOE Biblioteca jurídica. 2019.